


2023ko udazkenean
Azpeitin, Zumaian eta Oreretan
egindako mintegietako edukia

KALE^{edo} BALE

ahaidetasun
feministetara!



AHAIDETASUN ETA GURASOTASUNAK FEMINISMOTIK AZTERTZEN

Emagin elkarteak 2023. urtean ahaidetasun eta gurasotasunak feminismotik aztertzen jarraitzeko burutu duen Kale edo bale ahaidetasun feministetara egitasmoaren baitan plazaratu diren edukien bilduma duzu esku artean.

2022an abiatu genuen proiektua *Egin, desegin, berregin: (ez)amatasunak ikuspegi feministatik* lelopean. Proiektuaren ardatz izan ziren jardunaldiak, hainbat korapiloetatik tiraka jarraitzeko beharra azaleratu zen eta baita gai zehatz batzuk lantzen jarraitzeko premia ere. Nolako erreferentziak behar ditugu gurasotasuna feminismoruntz biratzeko? Nola indartu ditzakegu senidetasun iruditeria berriak? Zein dira erditzen diren gorputzen beharrak? Nola egin aurre gizonen absentziari? Nola indartu heziera komunitarioa berriz feminizazioan erori gabe? Nola indartu ez-amatasun kontziente eta politikoen diskurtsoak? Zein paper izan behar dute horretan guztian erakunde publikoek, merkatuek, komunitateek?

Argi genuen galdera horien inguruko hausnarketa ezin zela eremu pribatura eta indibidualki hartutako erabakietara mugatu. Horregatik, Emagin elkartetik Gipuzkoako 3 herritan, modu deszentralizatuan eta askotariko emakumeekin zein aliatu feministekin ahaidetasun feministen inguruan




jarduteko espazioak sortu ditugu. Hiru helburu nagusi ezarri genizkien mintegiei: lehendabizikoa, ahaidetasun zein gurasotasun feministen gaineko hausnarketa kolektiboa sustatzea; bigarrena, gurasotasun zein zaintza sare komunitarioen erreferentzia praktikoa zein sinbolikoak ezagutaraztea; eta azkena, erreproduktzioaren eremuan ondoezak, bidegabekeriak zein indarkeriak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategietan pentsatzea. Zehazki, ondoko gaiak izan ditugu hizpide Azpeitin, Zumaian eta Erreterian, hurrenez hurren, burututako mintegietan:

1. Amatasunen ondoezak eta erresistentziak.
2. Ahaidetasunen fikzioak eta utopiak.
3. Absentziak eta eraldaketak.

Pentsamendu kritikoa eta bestelako adierazpenak erabili ditugu ahaide-tasun feministak larrutzeko udazken honetan. Guretzako arrazoia ez da mintzaira bakarra ezta nagusia ere, eta lekuko polita izan dira mintegiak zentzu horretan. Bakoitzak beretik parte hartuz aberastu ditugu elkarren gogoak, minak, esperientziak, iritziak eta, batez ere, barrenak. Urrats bat gehiago izan dira, aurrera egiteko ezinbesteko lorratza, ordea.

Emagin Elkarte
2023ko azaroa





1

AMATASUNEN ONDOEZAK ETA ERRESISTENTZIAK

Egungo mugak eta ondoezak:

Silvia Agüero Fernández,
Parean Elkartea,
Natalia Gardeazabal Díez.

Gure minak sendatzen:

Azpeitiko Amen Sarea.

SILVIA

Agüero Fernández

Ijito herriaren aldeko eta indarkeria obstetrikoren kontrako ekintzaile feminista

Egungo mugak eta ondoezak

Egun on, lachos chibeses, bon día, buenos días... ¿Cómo estáis?

Seguro muchas conocéis el foro *El parto es nuestro, apoyo cesáreas*, de mujeres que habían sufrido cesáreas y lo habían pasado realmente mal. Me sentía muy entendida en los foros para el apoyo en cesáreas, y entre las mujeres me sentía muy comprendida porque todas habíamos vivido violencia obstétrica, pero... había algo que a mí no me permitía terminar de empatizar con ellas. ¿Por qué? Eran todas mujeres blancas, payas, con un estatus social medio/alto (si existe). Todas como universitarias, y mucho más mayores que yo. Y ahí no me sentía muy comprendida.... ¡tomé conciencia!

A mi Miguelito lo “nacieron” un madrileño 25 de abril soleado y frío. No lo parí. No me dejaron parirlo. Ni me permitieron que participara de ninguna manera en su nacimiento.

No llevé un embarazo consciente. Lo sé, lo sé ahora. No lo supe entonces. En mi inocencia pensaba que nada malo podía ocurrir, que los médicos y enfermeras todo lo hacían perfecto, que sabían mucho más de mi cuerpo que yo misma.

De 41 semanas estaba cuando llegué a monitores más contenta que unas castañuelas. Cosas que nunca se me olvidarán en la vida: las manos de una matrona muy experta tocándome la barriga y diciendo que el niño iba a ser muy grande. Cinco minutos después una joven-



císima ginecóloga me inspeccionaba minuciosamente porque la tensión me había subido un poco. Otros tres minutos después cuatro médicos, varias enfermeras y auxiliares alrededor de mis bajos mirando a la pantalla del ecógrafo mientras dudaban de mi responsabilidad en el seguimiento del embarazo. «¿Cómo no te has dado cuenta de que has roto aguas?! Si es que sois muy jóvenes», afirmaban mientras su condescendencia me taladraba.

Hoy puedo decir que no sólo estaba siendo sometida a unos actos de violencia obstétrica, sino que aquello tenía además un componente étnico tan fuerte como es el antigitanismo: mi moño me delató y en ese «si es que sois muy jóvenes» se condensaban todos los estereotipos antigitanos que, por desgracia, están instalados en las mentes de tantas personas de la sociedad

mayoritaria: la hipersexualización, el morbo, la supuesta precocidad sexual, la lascivia con la que se nos estigmatiza, la lujuria con la que se nos carga.

De las bocas de aquellos supuestos sabios escuché en aquellas 24 horas frases que me marcaron y aún me marcan y duelen: «No has dado de comer a tu bebé», «has comido mucho y tú has engordado, pero el niño no», «quita, no sabes», «no puedes parir», «te quejas mucho».

Por supuesto, sus bocas también estaban cargadas de machismo. Muchas de vosotras habréis sentido y escuchado las mismas frases y miradas.

Prostaglandinas y oxitocina en vena como para que pariera una elefanta en un hospital de humanos.

Me dijeron que lo “nacieron” a las 02:15 de la madrugada. Debí de

ser así, porque a las 02:10 me quitaron las gafas, ¡y sin ellas no di-
quelo chi, no veo nada! A las 02:12
sentí un dolor intenso. Grité. Me
durmieron completamente. Me
habían rajado, cesareado, ultraja-
do... Lo habían “nacido”. A mi hijo, a
mi chavorrillo de mis entrañas, a mi
pequeñito.

Mes y medio en el hospital. El niño
a neonatos. La mamá, o sea, yo en
reanimación los dos primeros días
y los restantes separada de mi hijo
por un pasillo largo, fluorescente,
resbaladizo, abismal.

No lo recuperaré. No era mío. Era de
todos. Todos lo habían besado, oli-
do, sentido, acariciado, besado. No
lo sentí mío.

Me achicharré la sangre y el alma
pensando que lo habían dejado
llorar horas y horas. La primera vez,
cuando nos conocimos, oí una voz
cerca de mí: “*sabrás cuál es el tuyo
en cuanto lo veas*”. No lo reconocí.
No supe cuál era. Tras la cristalera
de neonatos había cinco cunas. Ha-
bía que lavarse las manos. Mientras
iba hacia la pila, arrastraba los pies
y me martirizaba. No reconocía a
mi niño.

Miguel me enseñó a ser mamá de
corazón y no de nacimiento. Nos
tuvimos que conocer y enamo-
rarnos poco a poco, despacio, con

paciencia. Miguel me enseñó a ser
MAMÁ, MADRE, con mayúsculas y
aún me enseña. Miguel es peque-
ñito. No le gusta que le echen agua
encima de la cabeza, no le gusta
desde que lo nacieron. Le gusta
dormir a mi lado, que le expliquen
todo mil millones de veces y le en-
cantan las gachas con chorizo y las
migas. Es saltarín y a cada momen-
to me recuerda que me quiere.

“Hoy puedo decir que no
sólo estaba siendo sometida
a unos actos de violencia
obstétrica, sino que aquello
tenía además un compo-
nente étnico tan fuerte
como es el antigitanismo”

Al año de que nacieran a Miguelito
me separé de su papá.

Cinco años después tuve a Carmen
Manuela y es cuando conocí a *El
Parto Es Nuestro* (EPEN) y su lista de
correo *Apoyo Cesáreas* (AC), un foro
de ayuda mutua y sororidaria que
leía cada día, con cuyos mensajes
lloraba, reía, me emocionaba... ya
que sentía aquellas mujeres tan
cerca como si fueran mis primas o
mis hermanas.

“A todas las gitanas que habían parido allí siempre les daban la misma, la habitación 118”

El día que cumplí las 42 semanas había firmado la inducción. Por no discutir, como de costumbre. No lo pensé. Nico iba a mi lado, paciente y tranquilo, como suele ser y así hacía que no perdiera el norte ni el sur. No lo pensé. Cuando la auxiliar

Vinieron dos jovencísimas, me dejé abrir de piernas: «ok, todo perfecto, tienes que firmar la revocación de la inducción y entender que te haces responsable.»

El ejercicio de sororidad para con la ex de Nico al que me sometí me había servido para afrontar con temor consciente el embarazo-parto-postparto.

Lloré y firmé la revocación, a pesar de los miedos que me infundieron. Nico debió de oírme llorar y, mientras me vestía, apareció en la sala. Todo se calmó. Me citaron para el día siguiente, para la inducción o para lo que quisiera (monitores en

este caso), pero dijeron «para lo que quisiera».

Antes de salir, con mis lágrimas controladas y una gran carga que me sobraba fuera de mí, un descanso por llorar y soltar la tensión a la que me sometieron, me ofrecieron ¡la ligadura de trompas! ¡Tengo 30 años! «¡No!», les espeté. Aquí volvía a aflorar el antigitanismo: según el tópico, tenemos demasiados hijos.

Pasé las siguientes horas entre el cine, la cocina y una ducha de casi dos horas.

Al día siguiente tenía dolorcillos cuando llegué al hospital a las nueve y pico de la mañana. Me recibió una amorosa ginecóloga que ya sabía el numerito que yo había montado el día anterior. Al parecer, la pro-PVDC (Parto Vaginal Después de Cesárea) ya se había dado a conocer, pues todo el mundo sabía la heroicidad—palabra de las auxiliares—de haber firmado la revocación e irme.

Con el cambio de turno, vino otra matrona. «Hola, soy la matrona de este turno y me llamo África». «¡África! Como la niña de Mabel», eso le dije. Y me dio alegría. África miró mi historial. Se sentó a los pies de la cama y, cuando me venía la contracción, callaba. Cuando comen-
tamos los detalles de mi historial,

me contó que tenía tres hijos y que daba lactancia en tándem. Le hablé de ellas y ¡las conocía! Conocía EPEN y la lista de AC. «¡Vas a parir, Silvia! ¡Vas a Parir!» Me había venido abajo. Pensaba que ya no pariría. La idea de la cesárea había invadido todo mi pensamiento y África me hizo recuperar el ánimo: ¡Claro que podía parir! E iba a Parir una niña gitana libre, con amor. Iba a Parir a ¡Carmen Manuela!

“Me había venido abajo.
Pensaba que ya no pariría.
La idea de la cesárea había
invadido todo mi pensa-
miento y África me hizo
recuperar el ánimo”

Cuando cogí a Carmen Manuela sentí una explosión de sentimientos que no puedo describir.

Me miraba con los ojos abiertos como platos, calentita, suave, mojada.

Se meconió encima mía y de África. Nico se emocionó. Yo solo podía reírme, y reírme.

Reptó hasta la teta. Faz nos hizo fotos y un vídeo. Bien por ella, porque eso era lo último en lo que yo pensaba.

Poco después me dijeron que si quería que me subieran la oxitocina para que saliera la placenta. «¡No!», les dije, y me vinieron contracciones y apreté. Salió enterita, y también le hicieron fotos y vídeos.

Nico vio nacer a su hija. Cortó el cordón por decisión mía. Carmen Manuela pesó 2,760 Kg y midió 52 centímetros. Morenaza sin igual que no lloró en ningún momento. Comió teta y comió purés de todo lo que puede comer a su edad, y está perfecta. Y todo esto gracias a EPEN, a AC, a vosotras, madriñas mías, comares que me habéis empoderado. Parir a Carmen Manuela ha sido lo más brutal que he hecho jamás.

Por cierto, se nos asignó la habitación 118, que es la que siempre, siempre, siempre le asignan a las gitanas, como bien sabía nuestra amiga ¿Por qué? Porque es la más lejana del control. Así evitan que la afluencia de visitas —¡así lo dice el tópico, que los gitanos inundamos los hospitales con nuestro amor hacia nuestros parientes enfermos!— moleste a las demás parturientas.

Todo esto que os he contado impactó en mi vida, a mí me curó el parto de Carmen Manuela. Yo soy la que soy ahora mismo, me sanó parir a Carmen Manuela. Aunque

el segundo parto hubiera sido inducido (e incluso creo también si hubiera sido cesárea), me sanó ser dueña de mis propias decisiones en ese momento. Y las mujeres que me conocieron entonces ahora me dicen “¿Cómo has resurgido!”. Empecé a escribir en Píkara, hice una obra de teatro, me puse a dar charlas... mi autoestima cambió.

“Me sanó ser dueña de mis propias decisiones en ese momento”

Y me sanó muchísimo incluso la crianza. Con Carmen Manuela tuve todos los sentimientos que parece que son los que tienes que tener. En el parto de Carmen Manuela tuve oxitocina natural, no fue un flechazo lo que tuve, fue un proceso químico que tu cuerpo hace para que te enamores de tu bebé, para que lo cuides y para que en ese momento estés bien. Cosa que no tuve con Miguel.

Me curó, me sanó y empecé a hablar de maternidad y antigitanismo porque lo que había sufrido era muy fuerte. Una enfermera no te puede decir todas las cosas que me dijeron y todas las cosas que hi-

cieron, y todas las caras malas que yo vi durante el parto. A las mujeres nos han quitado el poder de parir. No solo a las gestantes, también a las matronas. Pues mandan lxs ginecólogos que se piensan que entienden más de tu cuerpo que tu misma.

“Creo en un feminismo donde podamos mejorar el tipo de maternidad que vivimos”

Entonces cuando entiendes el quit del feminismo (aquí todas somos feministas, ¿no?) entiendes por qué sucede este proceso. Entiendo entonces que este es lugar seguro para que me digáis *yo sí te creo hermana* respecto al antigitanismo, de la misma manera.

Mi experiencia como madre y gitana es muy parecida a la vuestra. Seguramente más porque somos feministas, porque creemos en una maternidad consciente, en una maternidad gozosa. Seguramente tenga yo más en común con vosotras que con la gitana que vive enfrente mía. Y esto es porque no hay tantas diferencias. La diferencia está en el tipo de opresión que

sufrimos, no en nostras mismas. Creo en un feminismo donde podamos mejorar el tipo de maternidad que vivimos.

Me habéis hecho esta pregunta: **¿las gitanas cuidáis mucho las relaciones interpersonales? ¿A menudo vuestra red de cuidados se extiende más allá del vínculo sanguíneo? También hay quien relaciona la educación gitana con la crianza en tribu, cuéntenos un poco esto.**

Me ha rechinado un poco la pregunta, no es por echaros la bronca, sino para entender cómo hablamos. No sé si las gitanas cuidamos mucho las relaciones interpersonales, ¿por qué se piensa siempre esto de nosotras? No está bien planteado. Pues, creo que no diríamos que a todos los valencianos les gusta la paella. Es la misma movida. Esto de la maternidad gitana como el sumun de la felicidad materna, tiene que ver mucho con el racismo.

Esta cuestión de extremismos tiene consecuencias con nosotras; todavía hoy en día a las madres gitanas nos acusan de robar niños. El acoso todavía es brutal. A las mujeres se nos acusa doblemente, porque como madres y como mujeres no tendríamos que permitir esos robos de niños ficticios.

El antigitanismo es una forma específica que sufrimos las personas gitanas que es constantemente banalizada y que es perpetuado por las instituciones y es estructural. Cualquier persona gitana sufre antigitanismo. Y lo perpetúan las instituciones y no las personas.

Gitanofobia es el asco a las personas gitanas pero de personas que no tienen ningún poder para ejercer anti-gitanismo. Y el anti-gitanismo es, cuando sí tienes poder para ejercer tu racismo. Y esto lo pueden hacer las profesoras, ginecólogas, médicos, educadora social, enfermera.... Y son nuestras primeras opresoras. Lo digo porque seguramente entre vosotras hay este tipo de oficio laboral. Y lo digo porque el anti-gitanismo tiene cura, pero hay que tener conciencia.

Todas las mujeres (personas) que decidimos ser madres, nos acercamos a un sistema anti-madres, anti-hijos, capitalista donde todo lo que se valora es producir y no cuidar. Nuestra alianza y visión feminista nos puede hacer superar esta opresión.

Creo que para tener una maternidad más habitable nos enfrentamos a los mismos retos. Intentemos no sucumbir a la era capitalista, sé que es difícil.

Creo que el mundo es maternofóbico, adultocéntrico (donde los niños no tienen un lugar y están olvidados). Y aquí necesitamos mucha conciencia y construcción feminista.

OIHANA Llorente

Parean Elkarteko kidea, generoa ardatz, egiazko komunitateak ehuntzeko bokazioa duen elkartea.

NATALIA Gardeazabal

Irakaslea, ama bolleroa eta herri mugimenduetako kidea.

Egungo mugak eta ondoezak

Genero disidentzien ikuspegi horretatik amatasunera gerturatzera ekarri duen jakintza eta esperientzia horretatik hitz egitea eskatzen dizuegu hasiera honetan eta gero Parean-eko Atsolorra aurkeztea eta bertan ikusi den guzti hori gurekin partekatzea.

Oihana: Atsolorra jaiotzen da Parean elkartearen behar natural batetik. Gu mugimendu feministatik gatoz, gaztetatik militatzen dugu bertan. Bizitzaren etapa berriak aurrera doazen heinean, lan produktiboa lehenengo, ama bihurtzen gara gero, zaintza lanak... Ikusten dugu militatzeko espazioa geroz eta txikiagoa dela eta ezin diogu eutsi lan militante horri. Eta orduan erabakitzen dugu urteetan ikasitakoa eta genituen gogoekin, elkartetxoa

sortzea eta poliki poliki bertan inbertitu dugu gure denbora. Hasieran modu militantean, gero gure lan produktiboetatik goaz pixka bat denbora gehiago inbertitzen eta azkenean gure lanbide bihurtzen da eta bertan jarduten dugu buru belarri. Oso lotua dago zaintza lanak, kontziliazioa, adinean gora goazen heinean, nola estutzen duten gure bizitza, eta espazio gabe geratzen gara. Horri buelta emateko apustua egiten dugu.

Apustu honetan hirurak bihurtzen gara ama eta ikusten dugu galdera berriak ditugula. Feminismoa izan da bizitza guztian helduleku indartsua guretzat baina, amatasunean umezurtz aurkitzen gara. Momentu batzuetan irudikatzen dugu, ama garen aldetik, ulertuko

garela. Lehenengo urteak bakardade sentimendu hori oso presente dago eta bat-batean arratsaldeko zortzitan afaria prestatzen ikusten zara, umea kriston kasketarekin, bakarrik... Eta pentsatzen duzu: zer egin dut nire bizitzarekin?

Oihana: “Gehienok sentitzen ditugu bakardade horiek, baina, ez daude espazioak horiek kontatzeko, partekatzeko eta elkar aitortzeko

Gehienok sentitzen ditugu bakardade horiek, baina, ez daude espazioak horiek kontatzeko, partekatzeko eta elkar aitortzeko. Inork ez dizu egia kontatzen. Ez dakizu amatasuna horrela dela eta beraz deskubritzen duzu zuk bakarrik. Zer da hau?

Beste kontraesan askotan bezala, feminismoa heldulekua izan dugu. Baina amatasunak eragindako behar horietan ikusten genuen diskurtsiboki eta praktikan, amatasunean umezurtz aurkitzen ginela. Beraz, gure beharretatik bazen momentua horrelako plaza bat sortzea eta gure beharretatik abiatzea erabaki genuen.

Atsolorra horrela sortu zen; abiatu genuen.

Atsolorra XVI. Mendeko Euskal Herriko jaiotza erritu bat da; Kristautasun eta bataioa ezarri aurretik umea izaten zuen emakumeari egiten zitzaion ospakizun festa, elkarri laguntzeko, auzolanean. Eta izen hori berreskuratzea erabaki genuen.

Amatasuna zentroan jarri eta amak protagonista bihurtzeko proiektua izan nahi zuen. Askotan ikusten dugulako behar hori. Epaietarik gabe, ahizpatasunetik... Benetan kontatu benetako sentimenduak, zer suposatzen duen, eta ondorioak atera... Gero ondorio hauekin lanean jarraitzeko, baliabideak eskaintzeko.

Gipuzkoan hainbat herritar hasten gara lanean eta talde dinamikak egiten ditugu hasiera batean. Ondoren, galdetegi bat osatzen dugu gure hastapenetan ikusten ditugun egoeretatik. Galdetegian, askotan tabu diren horiek jaso ditugu eta ateratako emaitza horiekin botako ditut gaur nik nire hausnarketa eta ekarpen gisa Pareanetik amatasunaren gaiarekiko.

Natalia, zu nola heltzen zara amatasunera?

Natalia: Lehenik eta behin, hemen materiala den gauza bat dago, eta nire adina da. Honek



ematen ari garen hausnarketa uste duguna baino gehiago baldintzatzen duelako eta hasieratik aipatu nahi dut. Nire adinaren perspektibatik eta 20 urteko ibilbide batetik ariko bainaiz. Amatasunari buruz hitz egitean gainera, badirudi nire esparruan, lesbiana izanda, beti dela: bikote lesbianak edo ama bakarrak edo... Baina normalean ume txikiak dituzte.

Hogei urte bete berri dituzte nire bikiak, neska eta mutila. Nire bizipena partekatzen dut baina ibilbide honetan oso gutxietan izan dut nire bizipenen inguruan solasteko edo erreferenteak izateko aukera. Beraz, zelan bizi izan naizen galdeztzen zaidanean, basamortutik pasa naizela adieraziz ezagutzera eman nahi dut nire oasia. Batez ere, nerabetasunetik edo azken 4-5 urteak azpimarratuz bat egiten dut sentsazio horrekin. Nola esan, hutsune existentziala “*vacio existencial*” bizi izan dut. Ez bakarrik fisikoki, baizik eta li-

teraturan, ez pelikuletan, inolako esparru sinbolikoan, kulturalen... Hogei urte hauetako nire ibilbidean hutsunea erraldoia izan da. Benetan, ez dut ezagutzen edo ia inor inguruan ni bizitzen ari naizen hori konpartitzeko.

Ostras! Esango duzue... Zer gertatzen ari da? Entzun dut goizean umeak bakarrik uztean gaizki sentitzen garela amak (edo sentiarazten gaituzte). Nik, ba... Etxetik bota nahi dut, ez faltan bota, baizik eta nire seme etxetik bota nahi dut.

Beste planeta batean nagoela dirudi, benetan. Zer egiten dugu emakume lesbiana feministak gure semeekin gure semeak bihurtzen direnean...? Bueno... Klaro, osea gure bizitza osoan pentsatu dut ezin genuela onartu gauza batzuk eta amatasunak aurrez aurre jarri nau.

Badakigu patriarkatua zirrikitu guztietatik sartzen dela. Baino hau? Nire etxera? Nire semearen izenean... ufa! Ba gertatzen ari zait, gertatzen da eta gertatuko zaizue!

Natalia: “Badakigu patriarkatua zirrikitu guztietatik sartzen dela. Baino hau? Nire etxera? Nire semearen izenean... ufa!”

Etzetik joan nintzen 16 urtetatik aita ezin nuelako aguantatu, nebarekin dudan harremana... *enfin!* Beraz, nik ez daukat bikote gizonezkorik, baina orain seme bat daukat. Eta pertsona bakarra da, gizonetzko bakarra da munduan ez dakidana zer egin berarekin. Beste guztietatik ihes egin dut! Guztiok ditugu beraz gure prozesuak patriarkatuarekin... Ez da erraza, baina egin ditugu eta egiten ari gara.

Ez dakit, bikote eta nobio gizonak dituztenak... Agian jakingo duzue hobeto.

Baino seme bat? Zer egin behar da? Eta badirudi broma bat dela.

Baina nire bizitzan gai oso oso serioa da. Eta pentsatuko duzue: ze suerte txarra. Ze bi ditu. Kasualitatea.

lkaragarritzko konfliktoa bizitzen ari gara bere ahizpak eta biok. Interesgarriak direnak, emankorrrak askotan, baina oso nekagarriak aldi berean. Oso nabarmena da eta oso agerikoa patriarkatuarekin ari garela. Ondoko logelan, gure etxean, patriarkatuaren *birrarmatzea* dudala diot nik.

Une honetan aipatu nahi dut, saiatzen naizela umorez eta umorea erabiltzen nire dramaz zuekin solasteko. Umorea helduleku bat da, egoerari eutsi ahal izateko.

Egun, haziara arduratsuaren hainbat diskurtsoetan adibidez entzuten ditut gurasoak euren umeez genero adierazgarriak gabe hitz egiten. Nire kasuan, nire semeari “hijes” adierazle gisa zuzentzen banaiz *“jme puede partir la cara!”*. Politikoki ere, alde banatan kokatuak gaude egun, nire semea eta ni. Hau ere ez da kasualitatea, ezkerrekoak eta sozialistak garen bi aldeetako ordezkartza politikoetan.

Kontuan hartzeko, ba patriarkatua etxean eta erresistentzia izatea nik badakit zer den. Eguneroko ogia! Baino erreala da. Ez da kasualitatea edo mundu honek niri jarri didan misioa lesbiana feminista izateagatik. Ez! Badu pisu eta irakurketa sakonago bat.

Erronka gisa polita da, baina noski, laguntza behar dut.

Feminismoak oso gutxi izan dezake landua momentu batean amatasunean gertatzen denaz...

Natalia: Kontakizunak inportanteak dira, eta nik adibidez gaur Silviaren testigantza adi jaso dut, interesez eta errespetuz gainera. Baina nire bizipenetik eta egungo beharretatik, antipodetan dago diskurtsoa bera, narrazioa, hizkuntza... eta niretzat oso garrantzitsua da hizkuntza. Nola kontatzen ditugun gauzak; ze balio ematen diozun gauzei. Ni bere diskurtso horretan ez naiz kabitzen, eta bere hitzak ez naute ordezkatzeko inola ere ez.

Eta pentsatu dut agian berarentzat ni izango nintzatekeela “ama deabrua” edo.

Nire erditzetik hasita zer esan! Besikula kendu behar ninduten ebakuntza hartan jaio ziren nire bi-kiak. 3,600kg-ko bi haur erditu nituen, bueno atera zizkidaten! Erabat medikalizatua, artatua. Baina ez zegoen beste aukerarik, bestela denak hilko ginen. Hau kontatzen dut ulertzeko prozesu bakoitzak baduela berea. Nirea oso hotza izan zen, baina nik errespetuz gogoratzen dut. Eta eskertua nago.

Ez dut inoiz sentitu indarkeria halako erditze batengatik. Ezta nire prozesuan ere ez. Ni ez nator halako kontakizun batetik. Haurdun

geratzea zen niretzako inbertsio bat. Desira batekiko inbertsio bat. 35 urte nituen eta beste zerbait egin izan banu bezala aukeratu nuen amatasuna. Plan bat zen, plan on bat! Gero pentsatzen duzu eta ai ama... Horrible... Hobe nuke bi aldiz pentsatu izan banu. Nori okurritzen zaio? Kar, kar, kar!

Natalia: “Ez dut inoiz sentitu indarkeria halako erditze batengatik. Ezta nire prozesuan ere ez”

Orain baserri bat erosi dut; zaharra, berritzeko. Hau plan bat da, beste plan bat. Ba, bizitzak baditu hainbat plan. Ba amatasuna nire kasuan hori da: mundua konpartitzeko “pertonita” batzuekin.

Baina ez dakit nola esan, beste bizipen eta kontakizun bat da nirea. Batzuetan badirudi errelato horretan kabitzen ez garenak ba... “*la liga de la leche*” ba... Errespetuz... nik ez nuen halakorik behar.

Nire ardura bakarra zen, osasuna eta ondo egotea. Oso praktikoa nintzen. Hotza agian. Poesia gutxi egon da nire amatasunean. Motxila eta umea gaineen eraman? Ba nire kasuan ez dut egin.

Ama naiz. Ama eta aita. Niri beti egiten zidaten galdera zen: nor da aita? Ni idea, ez dakit (amorruez). Ez dut hozka egin nahi nire kontatze-ko moduarekin. Baina badago datu garrantzitsu bat. Haurrak erregis-
tratzen genituenean orduan aita jarri behar izan genuen. Eta nik... Jesús. Ez dago. Zuek ulertzeko ni nondik natorren.

Natalia: “Nolabait ama izatea pribilegioa bat ere bada”

Badakit beste mundu bat bizitzen ari direla egungo amak: eta gauzak asko aldatu direla. Gero legeak hor daudela, bi familia liburu ezberdin... Nik bi gordetzen ditut *aita* jartzen duena eta *unidad de reproducción asistida*.

Lesbianen kasuan legea aldatu zen, baina ama bakarren kasuan ez. Maitane Maritorenaren elkarriketa [Hamaika Tebistako M ama*eme*ume* saioan] ikusten aritu ginen berriki. Jabetu gara ez dagoela 20 urte pasata oraindik administrazioan aldaketa handirik; oso atzean goazela dirudi.

Ahots ezberdinak ekarri nahi genituen, eta zentzu horretan zuen gardentasuna eskertzen dugu, aniztasunaren aberastasuna nabarmena delako. Beraz, bakoitza ez da besteen hitzetan islatu behar, guk ez dugu hori nahi. Denok dugu gure lekua eta horri bide emateko plaza da hau.

Galdetu nahi nizuen; ama izatea orain hogeitau urte edo gaur egun, zuen ustez zer suposatzen duen. Eta 20 urtetako ibilbide horretan ikusi al duzue aldaketarik?

Uff! [Entzuten da]

Natalia: Nik gauza bat dakit, nolabait ama izatea pribilegioa bat ere badela. Leku pribilegiatu batean-jartzen zaitu. Nik horrela bizi dut ere batzuetan, eta hau 20 urte hauetan bizi izan dut. Testuingurua oso garrantzitsua da, eta nire 20 urte hauetako bizilekuak erosotasun handiak eman dizkigu, niri eta nire txikiei. Hiri handi bateko auzo anitz batean hezi dira eta hemen babesa sentitu dut. Nire umeak txiki txikitatiki harro agertu dira 2 ama zituztelako.

Eta egia da testuliburuak eta fitxak askotan egokitu gabe topatu ditugula, baina nik txikieria bat bezala bizitzen nuen, ixilik, kexurik gabe etxean egokitzen genituen denak. Ama eta Amatxu jartzen nuen, edo

Ama 1 eta Ama 2. Nik ez nuen erreferenterik eta dena zen berria, gure inguruan gu ginen lehenak eta horregatik edo, oso modu naturalean birplanteatzen nituen kontzeptua eta egoera hauek.

Oihana: “Eta uste dugu neurri handi batean errealitatea ezkutatu edo bakoitzaren motxilak pribatuan geratzeak dakarrela ezjakintasun sozial honen zentzua”

Garai batean hirian, gutxiespen eta bazterkeriaren lekuko ginen egunero, garaiko bestelako beharrak ere handiak zirelako (arrazakeria, pobrezia...). Aniztasun eta aldaketa handiak zeuden familia guztien artean.

Eta berriz diot, umoreak lagundu gaituela pasadizo askotan... baina orokorrean gure esparruan oso modu naturalean hezituak izan dira txikiak, orain handiak. Eta besterik esatea gezurra litzateke.

Oihana: Niretzako ama izateak bai eragin du aldaketa izugarri bat nire egunerokoa, nire bizitzan.

Atsolorrako galdetegian, galdetzen genuen ea ama izateko presioa sentitzen dugun... hor %50etik

gorak esaten du presio hori sentitu izan duela eta ezezkoak esaten dutenak onartzen dute, ziurrenik normalizatu egin dutela. Eta guk uste dugu hein batean horrela dela.

Nire kasu pertsonalean bada eraldaketa handi bat amatasuna. Bizitza Laboralekin jarraitu ezinik (kazetaria nintzen, Gara egunkarian), horretarako karrera bat ikasi nuen, baina ikusten nuen ezinezkoa zitzaidala kontziliazioa. Ezin nuen lanean nire maila eman eta jakitun nintzen, eta honek ere frustrazioa eragiten zidan. Lehentasunen eraldaketa erraldoi bat gertatzen da. Bikote harremana asko aldatzen da. Esaten dut maiz, badela *“estralurtar bat erortzen zaizu etxera eta zer egingo dut honekin?”*... Badago ezezagutza bat aurretik... Eta itzela da amatasunak duen erromantizazioa gero suertatzen zaizun benetako eta eguneroko amatasunarekin alderatuta.

Urte batzuk pasa dira oso lotua den hasiera hartatik, eta perspektibarekin esan dezaket ere ez dela horren txarra; ez dut orduko ezkortasuna. Hau ere pasa egiten da. Baina bueno, bada eraldaketa bat zeinari aurre egin behar diozun, eta une horretan bitarteko gutxi ditugu. Beraz, lehen momentu eta etapa horretan badago bakardade handia gure ustetan. Indarrak eta energia behar diren bizitza bolada horretan



tia! Nola da? Lautik bat, hola gertatzen da... Nola? Nola ez naiz enteratu honetaz? Probabilitatea da beraz denek izaten dugula eta gertatzen dira eta ez dakigu eta ez ditugu partekatzen. Zergatik? Gutxi hitz egiten da hasieratik bukaerara.

Ni ama bihurtu nintzen lehen aldiz orain dela hamar urte. Eta presioa haziera ereduaren inguruan zegoen. Presioa zegoen ama izatearen inguruan baina baita nola hezituaren inguruan. Orain arte eredu patriarkala zegoen, umea izan eta etxean sartu... Ba nik hori argi nuen ez nuela nahi. Lan mundura bueltatu nahi nuen eta nire lanbidean ezinezkoa zen. Niretzako azken urteetan atxikimenduaren haziera edo haziera naturalarekin (deitu nahi duzuen bezela) hirugarren lerro bat ireki da gure inguruan edo behintzat nire inguruan indar handi bat hartu duen diskurtso bat izan da. Gauza oso positiboak ekarri dituenak: zaintza denborak, hau eta bestea, denbora, dirua... Ez dago denen eskura.

Niretzako bai izan da presio bat. Ez delako aukera librea izan, ze zure testuinguruaren arabera da, zure

askotan sentitzen zara oso oso baxu. Eta uste dugu neurri handi batean errealitatea ezkutatu edo bakoitzaren motxilak pribatuan geratzeak dakarrela ezjakintasun sozial honen zentzua. Eta ez dela kasualitatea gauza batzuek ez hitz egitea edo beste ama batzuekin ez natural solastea.

Presioa handia da beraz amatasunak bere baitan duena sozialki. Hitz egiten den presio horretan ez da ama izan nahi eta ezin izan dutenen inguruan hitz egiten adibidez... Ama ez izatea oraindik ere justifikatu behar den kontu bat da. Gauzak normalizatu ditugu baina hor daude eta ez da hitz egiten ama izan nahi eta ezinez, ez da hitz egiten abortoez. Nik bi izan nituen. Iritsi nintzenean hiru hilabeterekin eta ez zeukanean taupadarik, os-

baliabideen arabera da, eta nik ez dut aukeratu.

Eta hortan malabaretan ibili beharra, ba *ostras*, bai da presio bat. Gaur egun, hamaika urte pasata beste perspektiba bat daukat, baina lehen urteak oso intentsoak eta justifikatu beharrarekin gogoratzen ditut. Ez agian gizartearekiko baina bai nire buruarekiko.

Oihana: “Baina amatasuna deseroso eta itogarri egiten duena ez da amatasuna bera, inposatzen diguten sistema kapitalista eta patriarkala da”

Eskolarizazioa, bularra eman edo ez, eskola *hippy* bat mendian edo ikastola (edo eskola). Nik denak eztabaidatu ditut. Nik uste dut gure belaunaldikoak, ezkertiar, abertzale eta feminista garenak, pisu bat gehiago izan dugu, eta esaten genueanean: gaueko zortzitan gure etxeko panoramak... Ba guk bakarrik dakigu!

Uste dut gaur egun badagoela eztabaida bat hor. Nik lehenengo umearekin ez nuen sentitzen ze-

goenik eztabaida horren argirik. Asko dago egiteko baina, ikusten da badagoela beharra...

Nik uste dut feminismotik lortu dugun zerbait bai izan dela kontraesanak ahizpatasunez lantzea. Baina amatasunean hori ez da egon, dena epaitua izan da. Gure artean, presio handi bat sentitzen dugu gure erabakiak justifikatzeko. Gure erabakiak justifikatzen ditugunean, parekoa kritikatzeko dugu. Baina amatasuna deseroso eta itogarri egiten duena ez da amatasuna bera, inposatzen diguten sistema kapitalista eta patriarkala da. Ez al da eraginkorragoa elkartu eta bakoitzak ahal duenetik horren kontra jo eta ez gure artean? Nik uste dut, ni sentitu izan dut Silviak esaten zuen diskurtso hori indar askorekin iritsi dela gurera eta niretzako bai izan da hirugarren zama bat.

Gogoan dut nola Donostiako jardunaldietan kide batek, presio horrek ere ama ez direnei eragiten diela mahaigaineratu zuela. Nire lagun askori galdetzen diegu zergatik izan diren ama eta ez dakite askok zergatik. Baina ama izan ez denak, argudiategi hori oso aztertua du, etengabe justifikatzera joan behar duelako. Eta nik bai uste dut hortik ez dela inor libratzen. Nataliari edo genero disidentzia edo lesbiana gisa ama izanda ez

dakit presio hori berdin egikaritu den, gutxiago...

Natalia: Guztiz ezberdin bizi izan nuen nik; ni *“la loca de la colina”* nintzen eta agian horregatik ez dut presio hori sentitu. Orain 20 urteko kontestuan, dena oso ezberdina zela esan behar da. Amatasuna eta amatasunaren pedagogia feminista ez zegoen agenda publikoan, ezta pentsatu ere! Orduan, abortuarekin genbiltzan jo eta su... Eta ni paradoxikoki klinika pribatuetan diru pila gastatzen haurdun geratzeko! Ai ama! Ze garaiak! Ze presio jasoko nuen nik? Kontrakoa, nire aukera pribilegio egoera batetik egiten nuen hautu askatzailea zen. Nik argi nuen nahi nuela nire bikotearekin ama izan eta orduan hasi zen gure aukera klinika pribatuetan, noski dirua nuelako, nire pribilegioetatik jabetun.

Lagun gay-arekin umeak izateko aukeraz ere hasi ginen garai hartan hizketan, pelikula batzuetan ere ikusi genuela gogoan dut...

Gero hezteko ereduaren kontu hori dago... Ez dut bat egin hogeitaz urte hauetan halako beharrekin. Egun baliagarriak ikusten ditut, kontraste eta aukera ezberdinen abaniko bat izatea beti ondo.

Gu jakitun ginen beste familia moten inguruan, baina aukera eta

legezkotasun gutxi zegoen. Gure kasuan ez zegoen aukera famili liburuan biak egoteko, hau nola konpontzen dugu? Ezkondu ginen, dibortziatu ahal izateko. Zelan egingen dugu bere beste ama izateko, eta gero ama izan zenez eta papearak lortu ditugunez ba dibortziatu gara.

Natalia: “Ze presio jasoko nuen nik? Kontrakoa, nire aukera pribilegio egoera batetik egiten nuen hautu askatzailea zen”

Sarea garrantzitsua izan da gurean.

Ni, umeek urte bat zutenean hasi nintzen Historia ikasten, eta irakas-kuntza ez nuen inoiz utzi. Politika-gintzan aktibo egon naiz urte guzti hauetan. Umeen beste amarekin zaintza partekatuan hezitu ditugu umeak hasieratik, urtean zehar aste bat batek eta beste aste bat besteak. Udan hilabeteko egutegia izaten genuen bakoitzak. Atsedengune eta espazio askatzailatzat dut zaintza eredu hau. Gero umeekin egotea egokitzen zitzaidan aste edo hilabeteen dena ematen nuen, erabatekoa zen nire entrega. Baina ez zen egunero eta iraunkorra. Beti

izan dut presente ea jendeak (ama), hau nola egiten duten egingarri egunero, atsedetik gabe. Beraz, bollera egiten zara edo... Baliabide publikoak behar dira. Ez du balio diskurtso erromantikoak erabiltzea guztia ezkutatzeko.

Oihanak hartzen du hitza Atsolorra egitasmoko galdetegia erantzun ahal izan duten emakume perfilaren inguruan solasteko:

Inkestak anonimoak dira eta ez dakigu zeinek erantzun zuen. %95ak euskaraz erantzunak izan ziren. Beraz, uste dugu erantzun duten gehienak emakume feministak eta gai honekin kontzientziatuak izan daitezkeela. Hala ere, emaitzak ostras! Larriak dira ze, %70ak esaten du amatasunak asko mugatu duela bere bizitza, karga mental eta ondorioz osasun mentala larrituta ikusi duela. Emaitzak dira, ez dakigu zehazki ze publikok erantzun duen baina susmoa da gure perfileko emakumeak dirala. Ez dakigu ze familia eredu egon daitekeen, baina hor bai ikusten da etxeko lanen eta umeak ez daudenen etxeko lanen zama handiagoa hartzen dutela emakumezkoek gizonetzkoek baino gehiago (Eustat-ek ere dio). Pixka bat hobetzen goaz baina arrakala nabaria da. Nik uste dut umeak aitortzen direnean, ba zaintza lan horiek biderkatu egiten direla eta hor

Oihana: “%70ak esaten du amatasunak asko mugatu duela bere bizitza, karga mental eta ondorioz osasun mentala larrituta ikusi duela”

eszedentzia eta murrizketen ehunekoak ikustean argi dago, horrek emakume izena du. Estatu espainolean hartzen diren jornada partzialen 4tik 3 emakumeak hartzen ditugu. Datu hauek esaten digute baime-nak orokortu direla eta denak ditugula aukerak baina orokorrean emakumeak hartzen ditugu horrelako zaintza lanak: behar dugulako, ikusten dugulako, nahi dugulako... Argumentario ezberdinak egon daitezke baina argazkia nabarmena da. Eta hor dago, gero honek suposatzen diguna: ibilbide labo-ralean, gure ekonomian (azkenean zaurgarritasun ekonomiko batean jartzen gaitu) bikote harremanean... Azkenean erabaki txikiak dira momentuan hartzen direnak horrek gero izan dezaken eragina gehiegi pentsatu gabe.

Natalia: Hurrengo mintegi batean Jule Goikoetxea egongo dela jakin dut eta hauek orain dela urte batzuk ikerketa itzel bat egin zuten, or-durarte inoiz egin ez zena eta, hor

ikusten da oso garbi zuk Oihana aipatzen duzuna.

Eta bai ikusten da lesbianen oso kasu gutxi egon daitezkeela galde-tegi hori erantzun dutenen artean. Ez da kasualitatea harreman bolle-roetan zaintzarekiko harremana eta ardura askoz orekatuago banatua egotea. Arriskutsua da pentsatzea zaintza hori aukeratua eta nahi du-telako egiten dutela emakume ama (hetero eta familia heteronuklearre-tan) ia gehienek. Silviaren hitzak ekarriko ditut pixka bat lokatzetan sartzen ari naizela jakinda. Baina uste dut ez nagoela oso ados berak dioenean emakume ijitoek auke-ratu egiten dutela beti zaintza edo ama gazte izatea. Aukeraketa horretan patriarkatua dagoela ez dugu ahaztu behar. Alegia, aukeraketa horretan testuinguru oso konplexu bat dago eta hori horrela esatea uste dut nik sinplifikatzea dela.

Desira oso kulturala da, atzean dugu aparato bat, eta ziurrenik nire kasuan ez inposatua. Ez dakit ama izan nintzen nahi nuelako. Ze nire estruktura mentala ere hor nuen: ama gaztea nintzela hil zitzaidan, eta banituen espektatibak, arroza pasa behar zitzaidan...

Atsolorran agertzen da amata-suna eskubide bat dela pentsatzen duela gehiengoak. Gutxiago direla

amatasuna eskubide ez dela edo hori zalantzan jartzen dutenak. Zer egon daitekeen iruditegi horren atzean?

Oihana: Gu emaitza horrekin harri-tu eta kezkatu ginen. Gainera, jakin-da nork bete zuen gure inkesta hori (emakume perfila diot). Guretzako guraso izatea bada desio bat, onar-garria noski. Baina eskubide bat ezin da izan eta argi dugu eskubi-de hori ezin dela eraiki besteen za-palkuntzaren gainean. Haurdunaldi subrogatuaren inguruan galdetzean %14,5a ados zegoen. Eta honek guri harritu gintuen; esanguratsua da oso.

Oihana: “Eskubide bat ezin da izan eta argi dugu es-kubide hori ezin dela eraiki besteen zapalkuntzaren gainean”

Gurasotasunaren eta amatasuna-ren eraikuntza sozial hori, galdetzen genuen ze gurasotasun biderekin ados zeunden: %14ak onartzen zuen haurdunaldi subrogatua. Bide justifikatu bezala. Aipatu nahi dut, galdetegia erantzun zuten harre-ra familiak eta adopzioa zela ho-bekien baloratzen duten familia

eredua edo aukeraketa. Baina gero familiak behar dira. Ni neu ere, ume biologikoa dugu lehen aukera gisa. Horren atzean ze eraikuntza dagoen eta nola sinisten dugun ere gure eskubide bat izan daitekeela eta guztiaren gainetik bermatu beharrekoa, guraso izatea.

Natalia: Guztiz ados, hau badakigu nondik datorkigun. Patriarkatuaren eta kapitalismoaren aliatu eta interes dominazio batetik eraiki den diskurtsoa dago atzean. Eta argi dut eskubidea kontsideratzea hortik datorkigula. Nik argi dut ez dela eskubide bat. Ez dakit zein hitz aukeraturiko nuke amatasuna esateko, baina eskubidea ez da.

Eskubide bat da, ume batek duena zainduta izatekoa. Baina alderantziz ez. Eta badator hor, amatasun subrogatutik diskurtso oso indartsu bat jendearen diskurtsoetan naturalizatzen ari dena. Eta kezkatzen nau honek.

Erruduntasun sentimendua eta bakardadea oso zabalduak dauden eta amatasunarekin agertzen diren bizipenak dira. Eta galdetu nahi genizuen zer egon daitekeen honen atzean. Zein estrategia izan ahal ditugu honetatik indartsuago ateratzeko?

Oihana: Amatasuna eta bakardadearena bada lehen bi urtetara be-

reziki lotutako sentimendu bat. Ez dakigu zertara enfrentatzen garen, eta eraldaketa handia dago bizitzeko moduagatik. Gu zaintzetara ez gara arduratzen ama izan arte. Umetan zainduak gara, nerabezaroan gu gaude gure txilberrari begira gure bideari segika. Eta ama egitean iristen dira zaintza lanak, eta tokatzen zaizu. Eta zaintza hauek tokatzen zaizkigunean jabetzen gara ez dardela demokratizatuak. Horregatik dago arrakala handia ama diren eta ez direnen artean. Erritmoak aldatzen dira. Ama bihurtzen zarenean zure aurreko bizitzarekin jarraitzea ezinezkoa da, eta errealitatearekin txoke egiten duzu: ezin da! Saiatu naiteke baina honek beste erritmo batzuk eskatzen ditu. Orduan, etxeratzen zara, depende nola zaren, niretzako izan zen brutalta. Arratsaldeko zazpitan etxean egotea, zer da hau?

Amatasunak eta gurasotasunak beste harreman batzuk edo beste espazio batzuk ematen dizkizu. Eta hau ere pribilegioak izan daitezke, eta jabetu behar dugu ez direla hobeak edo okerragoak, baizik eta ezberdinak. Eta hor moldatu egin behar zara pertsona bezala eta emakume bezala. Orduan, hor bai badagoela bakardade sentimendu bat eta erruduntasuna bada denboran irauten dena. Eta nik uste dut jasaten dugun presio guzti hori

dela. Ama izan aurretik, ondoren, haziera ereduagatik... Bat-batean jakin behar duzu denetatik. Zenbat motxila ditugu? Eta feminista eta abertzalea baldin bazara, euskara-rekin nola hazten duzun, nola ikusi ETB3 bakarrik... Kar, kar, kar... eta horri guztiari aurre egitea ba oso zaila da. Tamalez, erruduntasunaren sentimendua hor dugu eta oztopo bat da.

Natalia: “Amatasuna ikuspegi feministaz josi nahi dugunok, sororitatearen jarrera bat elikatzen jarraitu behar dugu”

Epaiketa handia dago honetan, presio asko, ez dugu elkartasun askorik gure artean. Eta zuk hitz egiten duzu beste amarekin eta orain denak ari zarete... Ez zoaz eskola atarira eta kontatzen duzu halako mintegietan kontatu dezakezuna. Baina egingo bagenu, ihesbidea izango litzateke. Baina ez dugu egiten, erruduntasuna ezkutuan daramagu.

Ni orain dela hamaika urte ama izan nintzenean sentsazio batzuk izan nituen, orain erditzen duen emakume batek izango dituela berdin

berdin uste dut nik. Eta asko da ez dugulako kontatzen edo ez daudelako espazioak halakoak naturaltasunez kontatzeko.

Natalia: Eta frustrazio horri gehitu nahi diot, oraindik ez dakizula hasieran zer aterako den zure heziera-rekin... Zuk nahi duzu matxiruloa ez izatea eta egiten duzu denetarik... Eta gero ateratzen zaizu alde zaharreko matxirulo handiena! Gainera hori da patriarkatua, ez dugu zertan burua haustu behar, ni dagoeneko nire adinarekin eta ibilbidearekin badakit identifikatzen zergatik den. Eta ez da gure ardura soilik. Eta honetaz jabetu behar gara, bestela ezinezkoa da osasuntsu aurrera egitea.

Oso motel doaz aldaketak. Eta amatasuna oso dominatua dagoen dinosauro moduko sistema batek dominatzen du. Eta gu izan gaitetzke munduko moderno eta irekienak baina kanpoan dagoena eta gure eskuetatik ihes egiten duena kontrolaezina ere bihurtzen zaigu; mustro moduko bat da. Askotan gainera disidentea eta ez normatiboaren kontra indartsuago oldartzen dena “*como una apisonadora*”.

Amatasuna ikuspegi feministaz josi nahi dugunok, sororitatearen jarrera bat elikatzen jarraitu behar dugu. Aliatu behar gara eta



epairik gabe aliatu behar garela sinistu behar dugu. Nik adibidez Silviaren eta beste askoren pentsamenduekin bat egiten ez badut ere, gure aliantzatan gehiago sinisten dut. Eta sinistua nagohemendik ateratzen dela mustroari aurre egiteko indarra.

Natalia: “Umeekin bidaietan munduan zehar oso onartua izan naiz, zaindua, leku pribilegiatu bat izan dut ama izan naizelako”

Beti epaituko gaituzte edozerren-gatik, horrexegatik joan behar gara espazio seguruetan arnasten. Gero eta garbiago daukat: pribilegioa esaten dudanean da, onartua eta babestua sentitzen naizelako nik eraiki dudana komunitatean. Ni, les-

bian gisa asko bidaiatu dut bakarrik eta umeekin ere, txiki txikitatik. Umeekin bidaietan munduan zehar oso onartua izan naiz, zaindua, leku pribilegiatu bat izan dut ama izan naizelako.

Haziera ereduaren talka aipatu nahiko genuke. Gaur egungo emakumeak ere hitz egiten dute *super woman* ereduaren eta azken urtetan indarra hartzen ari den haziera eredu naturalak edo kontzienteak. Zeintzuk dira zuentzat amatasun bizigarri baterako gakoak? Berdin digu bakoitza ze eredutan kokatzen den, baina zein ideia berreskuratuko zenituzkete?

Natalia: Baliabide publikoak behar ditugu. Denboran ezberdinak izango dira, ditugun beharrak aldatzen doazelako denboran zehar. Baina baliabide publiko ezberdinak behar dira hazieraren etapa ezberdinak dakartzan beharrei erantzuteko.

Estatua beharren arabera antolatu beharko da. Nik orain, (eta azken 5 urteetan adibidez) beste baliabide batzuk behar ditut. Nire haur nerabe/gaztearen haziera ulertu eta eusteko. Baina baliabide gabeko basamortu batean topatu naiz.

Nerabeek jotzen bagaituzte, daukagun baliabide bakarra Ertzaiei deitzea da. Pandemiatik hona, etxeko egonaldiak eztanda egin zuen eta ez da hitz egiten horren ondorioetaz inongo espazio edo instituzioetan. Etxe askotan gertatzen ari da. Zero errekurtso daude, eta soilik aktibatzen dira biolentzia dagoenean.

Baina nola pasako zait niri feminista izanda... Hor dago amatasunaren frakaso. Biolentzia dago hau airtortzean eta fraude hutsa da.

Amatasuna eta biolentzia irudikatzean, gehienetan indarkeria obstetrikora joaten zaigu burua eta kasu honetan, amatasuna eta biolentziari lotutakoa da guk eusten dugun indarkeria bat edo gure etxean oso sartuta dagoen indarkeria bat. Ez da erditze gela ematen den zerbait, norbaitek eragiten dizuna, kanpotik. Eta hor bide handi bat daukagu egiteko.

Natalia: Belaunaldi honekin, datozen urteetan agertuko diren portaerak erabat berriak izango dira.

Belaunaldi erabat babesgabea izan dela uste dut nik; argi utzi nahi dut ez direla gazteak (hiritar gisa) erantzuleak. Nik ama eta irakasle gisa, esan dezaket bi aldeetatik ikusten ari naizela orain esan nahi dudana. Kapitalismoak esperimendu handi bat egin du belaunaldi honekin azken urteetan eta orain lehen emaitzak ikustean, amorruez, onartu behar dut irabazi duela.

Oso gazte jatorrak eta maitagarriak izanagatik, sistemak bere gain dominatu ditu. Maskulinitate hegemonikorako prestatuak izan dira komunitate kontrolaezin batean. Eta ni kezkatua nago ez delako kasualitatea, eta ez dakit zein neurritan jabetzen ari garen jendarte eraldaketa honetaz. Buru osasun arazo handiekin somatzen ditut gainera, dependentzia handiekin eta ludopatia (eta patia denak auzartzen naiz esatera) onartezinek bere izaera kontrolatzen dute. Hau agian hiriko errealitatea da, baina ez dut aipatu gabe utzi nahi. Eta pandemian bereziki eztanda egin zuela esango nuke. Etxean gordeta izan genituelako eta buruak eztanda egin zien, eta atera zirenetik ez da ezer egin eta ezer arduratzen...

Bada nonbait zerbait asistentzialista, baina oso kasu extremo edo larriak artatzeko bakarrik funtzionatzen duten baliabide eta programak dira.

Gazteak dira gehienak, beraz ez dira 20 urteko umeak. Baina ez direnez umeak baino bai gure ardurapekoak, ba oso konplexua bihurtzen da. Eta horretarako estatuak sartu behar du dirua, adituak, baliabideak, zentruak... Eta aurreikusi behar da lehenagotik. 12 urterekin, oso gazte esango nuke, hasten direla bide hau hartzen eta asko aisialdi ereduarekin indartzen da.

Natalia: “Kapitalismoak esperimentu handi bat egin du belaunaldi honekin azken urteetan”

Nik esaten dut Pirritx eta Porrotx ondoren... C.Tangana hartzen duten artean ez dagoela ezer, basamortua dagoela. Eta amak gaude hor, sostengatzen oso zaila den gauza bat. Baliabideak behar ditugu, inoiz inork pentsatuko ez genituenak. Eta noski, kontatu ez diguten zer bait gainditzeko.

Beraz, gure artean sareak sortzea, esperientziak elkar kontatu, ez epaitu, eta guraso asko pasatzen ari diren egoera bat identifikatzetik bilatu behar ditugu irtenbideak, sostengu emozionalerako oso garrantzitsuak dira.

Niretzat larriena izan da pentsatzea nire arazoa zela, niri bakarrik gertatzen zaidala. Bakarrik niri? Gainerakoak ikusten dituzu kalean horren perfektu.

“Joder ama, klaro, eske zu zara esageratu bat, ze besteen amak ez dira zu bezelakoak...” Eta horrek niri burua lehertzen dit. Zer esan nahi duzu bestelako amak esaten duzuean? Zure semeak hori erabiltzen duenean...

Nik pentsatzen dut: ama hauek zer ari dira jaten? Zer ari dira sostengatzen? Zeren mutil kuadrilla denak berdinak dira. Ez da nire semea.

Nik identifikatzen dakit, feminista naizelako.

Oihana: Asko sare soziala eta mobilak eraginda ematen da.

Natalia: Ludopatiarena oso latza da, belaunaldi bat da, mutilak dira gehienbat. Hori alde batetik eta bestetik matxismoaren kontraeraso dago. Eta hau gertatzen ari da. Ondo dago? Bai. Ofentsiba bat izan dute eta erantzuna jasotzen ari gara. Eta ez da Rubiales... Etxean dugun senitarteko maitea da. Eta nire semea bere arrebaren kontra oldartzen da, gizarte konplexu batean gaude eta feminismoa indartu eta indartu behar dugu, dugun tresna delako. Ez da haien kontra



egiteko, haien alde egiteko da. Eta une batean edo etorkizun batean, desoreka orekatzen lortzeko. Baina orain hau ezin dute onartu.

Oihana: Gure zazpigarren urtea da ikastetxeetan hezkidetzat lantzen eta aurten lehen aldiz neskak eta mutilak bereizteko erabakia hartu dugu, geletan dauden 4 matxiruloak ez dezaten protagonismo dena jan eta neskek ez hitz egin. Belaunaldi honekin, nesken ahal-duntzean ariketa handia egin dugu eta ez dugu fokoa jarri honek mutilengan eragiten zuena. Aspertuak daude gelara joateaz hezkidetzaz hitz egitera eta kontraeraso batean daude. Benetan larria dela, ze azkenean gure semeak dira eta hauek

etorkizuneko gizonak. Edo nire alabarekin partekatuko dutenak ikasgela eta aisialdia.

Oihana: “Benetan larria dela, ze azkenean gure semeak dira eta hauek etorkizuneko gizonak”

Nerabezaroaz hitz egitean amatasunari lotuta ez dagoen zerbait dela ematen du, baina jabetu behar dugu baietz. Txirriatu nau... “*umeak opresio gehienak bizitzen dituztenak dira*” esan duenean [Silviak]. Niri adibidez iruditzen zait (nire iritzia da, ez Parean-ena) gure belaunaldiari amatasunarekin burua pixka bat joan zaigula. Garai batean umeak etortzen ziren eta denarekin aurrera egiten genuen. Eta orain ume bat dator eta uzten dugu guztia... Eta frustratzen gara gu baina ez diegu frustrazioan irakasten. Benetan nire ustez atentzio gehiegi ematea ere hori ere ez dela ona

eurentzat eta nik uste dut jasotzen ari garela agian bestelako amatasun baten uzta. Eta ez dut esan nahi gure errua denik baina atentzioa jarri behar diogu honi. Kriantza zentroa izan behar du eurak ahalduntzen baditu. Bizi gara gizarte batean eta hau partekatzen eta errespetatzen irakatsi behar diegu.

Natalia: Oso argi ikusten dudan erreakzio bat da. Nahiz eta haiek oso txikiak izan, oso kontziente dira beraien pribilegioetaz. Patio batean, hezkidetza proiektu batzuekin 30 urte daramatzagu eta patio-tatik baloia kentzea ez dugu lortu. Nola amaituko dugu patriarkatuarekin ezin badugu baloia kendu? Hau oso motel doa, baina oso tinko. Hau kontraeraso argi bat da. Eta umeak euren pribilegioekin dominatzen dituzte irabazitako pribilegioak. Beraz, esatera ausartzen naiz umeak ere badirela tirano hutsak.

Kontuz horrekin ze oso azkarrak dira, eta boterean eta pribilegioetan hazten baditugu honen oso kontziente dira oso txikitatik. Sentitzen dut, baina ikasi behar du pribilegio horiek galdu behar dituela. Ba niri hori da semearekin gertatzen zaidana. Ezin da, eta konfliktoa eta talka hortik dator.

Feminismoak honi aurre egiteko katana zorroztua ematen digu.



Azpeitiko Amen sarea

Erditze ostea bizigarriagoa egiteko eratutako sarea.

Gaur zuekin hiru ordezkari gaude hemen: Haizea, Amaia eta Eneka. Taldea bederatzi emakumek osatzen dugu eta beti gure esperientzietatik abiatzen gara, alegia, gurea da, guretzat mundiala.

Gure planteamendua zen hasiera batean kontatzea nola egin dugun Amen Sarea deitu diogun prozesu hau Azpeitin. Prozesu honetan gorputzera eta bizipenetara jetsi ditugu gure beharrak. Hauei tartea egin eta minak sendatzea bilatu dugu. Baina argi dago, gaur ez dugula minik sendatuko. Ez dugu tarterik baina oxigeno bonba bat izateko asmotan kontatzen dugu gure esperientzia hau.

Ama izatea horren exigentea den lurralde honetan, elkar zoriontzeko espazio bat. Esateko... “neskak, ondo ari gara”. Horretarako gure

lema handiena zen “dena ondo dago”: Etxean geratzen zarela... ondo dago; Lan ordaindua auke-ratzen duzula... ondo dago; Bularra ez ematea erabakitzen duzula... ondo dago...

Guretzat bazen eta bada txapel bat elkar-zaintza eta elkarbizitza barne biltzen duena. Taldean babestea eta gure minak osatzea. Eta hau abiapuntu izanda, espazio hau gure bizitzak bizigarriago egiteko gunea izan da. Gakoa izan da tratu onetan entrenatzea. Nolabait, gure egunerokotasunean tratu onen pilula batzuk edukitzea.



Hasieratik jabetzen ginen zer ari ginen eskaintzen, nahiz eta deialdi zabala egin, bagenekien guretzako ari ginela, gure sarearentzako. Eta finean, ez geniola sistemari zirrikitu handirik egingo, baina guretzako bazela oxigeno bonba bat eta hortik egiten gurela gure ekarpena.

Ni neu 2020an izan nintzen ama lehen aldiz. Eta sentitu nuen orduan nire gorputzetik eta bizitzetik gerra mundial bat zeharkatu zela eremu guztietan. Hasieratik identifikatu nuen, ni bezala zeuden emakumeekin konpartitzea, egotea, behar nuela, lehenesten nuela.

Zaintza tribu bat zela gurea aipatzea gustuko dugu guk. Elkar babesteko, entzuteko, ondo pasatzeko, negar egiteko, goxatzeko, aliatzeko... gero kokapen bezala interesgarria deritzogu aipatzea hau dena nondik sortu den, baliabideak nondik eta nola lortu ditugun.

Garai horretan herrian *Plax!* Zerbitzua zegoen. Honen bidez, herritarrei

zuzeneko sexu aholkularitza zerbitzu eskaintzen zen eta bazi-
ren hainbat ordu herriko eragileekin lantzeko. Ba hor ikusi genuen aukera proposatzeko erditze ondorenean geunden emakumeetako saio batzuk bideratzea. Udalak babestu zuen hasieratik eta eskertze-
koa da baliabide hori balioan jartzea udaletik. Hori izan da abiapuntua.

“Zaintza tribu bat
zela gurea aipatzea gustuko
dugu guk. Elkar babesteko,
entzuteko, ondo pasatzeko,
negar egiteko, goxatzeko,
aliatzeko...”

Nik neuk hartu nuen gidaritzaren aukera (babesarekin) baina hasieratik talde osoak parte hartu du saioen antolakuntzan eta konpromisoarekin. Saio batzuk kanpo bi-
delaguntza eta gidaritza ere izan dute, beharren arabera.

Konpromisoa garrantzitsua zen, taldea talde izateko. Tribu gisa funtzionatzeko eta ez bi lagun bakarrik bilduko ziren espazio izateko. Hau arrakastatsua izan da, eta hiru saiotara mugatuko zen esku hartzea izango zela aurreikusi bagenuen ere, azkenean hamar saio egin genituen.

Egin genuen lana bereziki gorputzetik egin genuen. Gorputza zen gure tresna. Gure beldurretako bat zen, kexatzeko milaka arrazoi ditugunez, saio bakoitzean kexak hartzea gure espazioaren tarte handiena. Eta hori hasieratik gidatu dugu, ze kexak tartea izan du espazio hone-tan, baina beti lehentasunez eman diogu zentralidadea gorputzari. Gorputzetik gure emozioen lanketa egitea izan da gure jomuga.

Ni – gu dikotomia zaintzea izan dugu helburua. Denok estruktura batean kokatzea eta taldean elkar babestea. Oso malguak izan gara ibilbidean, hori ere ederra izan da.

Hasieratik erabaki zen umeak ez egotea, hau ere erabaki bat izan zen. Erabaki kontziente bat. Umeez hitz egiten batuko ginela, baina umeak egongo ez ziren espazio batean. Guretzat klabe bat izan da, hor baimentzen ginelako gu izaten.

Prozesuaren ibilbidea azalduko dut, hamar saioetan zer egin dugun uler

dadin. Ez genuen bizitzako aldaketa sakonik egin, noski. Baina oso momentu zaurgarri batean bizi izan ditugun saio hauek oso benetako zerbait izan dute: etortzen ginen pixkat baju, ahul, nekatu... eta ia beti joaten ginen ikaragarritzko txispa, bizipoz eta ilusioarekin. Hau esan behar da!

“Egin genuen lana
bereziki gorputzetik
egin genuen.
Gorputza zen gure tresna”

Elkar ezagutzea izan zen lehen pausoa. Bederatzi emakume bildu ginen: ama guztiak bikotean geundela eta heteroak ginela jabetu ginen. Familia heteronuklearra ordezkatzan genuen. Guk honekin egin genuen topo eta ezaugarri honek markatu du gure ibilbidea. Baina uste dugu prozesu berdinak ibilbide ezberdinak izan ahal dituela taldearen arabera. Guztiak erditze ondorengo bizitza boladan geunden.

Lan egiteko ze baldintza behar genituen adostu genuen lehen aldiz taldean: konfiantza, enpatia, errespetua, umorea, konfidentzialtasuna, eraikitzailea izatea, konpromisoa, talde izaera, norberak bere mugak jartzea, aske sentitzea eta

goxo. Nabarmendu nahi ditut umorea eta goxotasuna, beti oso presente.

Saioetara iritsi eta elkarrekin galdetzen genion: zer behar ditut nik? Ba oinarrizko behar horiek identifikatzea izaten zen lehen ariketa. Eta hauek identifikatzeko trebatze ariketak egitea ikasi genituen. Behar hauek gainera, eremu ezberdinekin identifikatzeko ariketa egiten genuen.

Tratu onen mapa bat eta beharren lorategi bat egitea bihurtu ziren gure tresna nagusiak.

Guztia akonpainatzen genuen musikarekin, gorputz adierazpenarekin, dantza egiten. Alegia gorputzera asko jeisten ginen saioan. Negar egiten genuen nahi eta behar genuenean.

Prozesuan zailtasun batzuekin topatzen ginen, eta saio batean hauek ere landu genituen. Eta taldean enpatia eta elkar zaintzarekin zailtasunei tokia egin eta irtenbide eta aukerak planteatzeko ariketa kolektiboak lantzen genituen. Garrantzitsua zen jabetzea berdinen aldetik ari ginela, botere harremanik gabe.

Taldean denok genuen eta ginen beste baten konplize. Konplize eta belarria. Batenbat bestea entzuteko funtzioa beteko zue-na. Baina beti egon behar zuen adostua, eta ezetz esateko aukera, konfiantza.

Prozesua amaitu zen gure burua ospatzen, zoriontzen.

Auto oparia izan zen prozesu guztian zehar bidelagun izan genuen beste tresna bat. Bakarrik, norberak bere buruari kosziente egiten genion oparia. Oparia egin eta prozesuak irauteen zuen denbora guztian irautea. Gero auto oparia baloratzea ere prozesuan parte zen.

Taldeari oparia egiten amaitu genuen prozesua: salto, dantza, negar, abesti... Gozada bat!

Bidean aisialdirako babes taldea bihurtu da, bi uda pasa dira eta udan adibidez familian ere elkartu izan gara.

Pozez eta eskertuak kontatzen dugu guretzat oso garrantzitsua izan zen sarea, espazioa.

Bidean sortuko dugu bestelakorik, baina bitartean eskerrikasko gure prozesuari tarte hau emateagatik; balioan jartzeagatik. Izan dadi-la bide berrietarako inspirazio eta aukera!

Eskertuta Emagineri.



AHAIDETASUNEN FIKZIOAK ETA UTOPIAK

Mahai-ingurua:

Elixabete Imaz Martínez,
Danele Sarriugarte Mochales,
Jule Goikoetxea Mentxaka.

Ama ta Asunak:

June Baonza Pagaldai.

ELIXABETE

Imaz Martínez

Antropologo feminista eta EHuko irakaslea

Ahaidetasunen fikzioak eta utopiak

Egia esan, pila bat eskertzen dut gonbidapen hau, ez da beti esaten delako, baizik eta asko gustatzen zaidalako holako izena duen mahai batean egotea: “fikzioak, utopiak, ahaidetasunak...” Eta hor antropologo batek zerbait esan dezakeela pentsatzeak egia esan kriston poza eman zidan. Izan ere ni oso alperra naiz mezuei erantzuten eta nahiko azkar esan nuen baietz. Oso iniziatiaba polita iruditu zitzaidan eta gainera Emagin ideia honekin jarraitzea gonbidatzen dut, oso ideia ona iruditzen zait.

Gustatzen zitzaidan gainera gai hau konpartitzearen ideia, ez bakarrik akademiako jendearekin, baizik eta beste arlotako artista eta literaturako jendearekin. Oso ausarta iruditu zitzaidan *ahaidetasun* hitza sartzea proposamenean. Nik uste dut *ahaidetasuna* izan dela hitz bat nahi-

ko sospetxosoa feminismoarentzat, *amatasuna* izan den bezala. Honek adierazten du ikusten zaiola ahaidetasun kontzeptuak duen nola-baiteko potentzialitatea.

Iruditzen zait euskaraz egiteak badaukala bere garrantzia, izan ere euskarazko hitzak oso interesgarriak dira eta oso diferenteak dira inguruko hizkuntzetatik. Badaukagu hitz bat potentzialitate handia duena: *gurasoak*. Hitz honetan ez dugu aitaz eta amaz hitz egiten. Kontzeptu bat da non aitaz eta amaz gain, beste figura batzuk egon daitezkeen; non umearen heziketarekin eta hazkuntzarekin zerikusia duten beste figura batzuk asmatu ditzakegun eta guraso izan daitezkeen.

Eta *ahaidetasun* hitzarekin gauza bera gertatzen da. *Guraso* hitzarekin loturarik ez duen hitz bat da, ez

aita hitzarekin, ez ama hitzarekin. Beste kontzeptu bat da. Gaztelaraz, ingelesez edo frantsesez “*parentesco*” eta “*padre*” lotuta doaz, eta euskaraz ez. Eta nik ikusten dut hitz hauetan badagoela bide berriak pentsatzeko potentzialidade bat.

“Ez dago galdu dugun mundu utopiko bat, baina badaude elementu batzuk iraganean edo beste leku batzuetan interesgarriak izan daitezkeenak”

Aukera hau aurkeztu zitzaidanean nire lehenengo inpresioa izan zen: “*ostras, ze potentia den titulua eta ze bide ematen dituen*”. Puntu horretatik desbordatua sentitu nintzen eta ea gai honi nondik heltzen diodan orain. Horregatik, saiaturik naiz txintxo-txintxo pasa dizkidaten hiru galderei erantzuten:

Lehenengo galdera hauxe zen: azken hamarkadetan ahaidetasunak izan duen bilakaera. Badago ahaidetasun hegemoniko bat? Badago alternatibarik?

Nik daukadan beldurra da nire interbentzioa ez ote den oso akademikoa hemen espero denarekin eta

larunbat goiza izateko. Saiatu naiz nire ikuspegia pixka bat egokitzen. Niri beti iruditutako oso inportantea dela antropologiatik beste lekutan eta beste denboretan egin diren gauzei begiratzea. Ez nolabaiteko utopia bat bilatzeko beste garai batean edo beste leku batean, baizik eta gauzak beste modu batean egin daitezkeela ikusteko eta esperientzia horietatik ikasi ahal izateko. Hitz egiten denean ahaidetasun alternatiboez edo familia alternatiboez, nik pentsatzen dut polita dela eta zerbait aportatzen duela beste leku batzuetara eta denbora batzuetara joateak.

Denbora gutxi dugunez, Europako zenbait gauza ekarri nahi dut. Ez naiz Ameriketara edo Ozeaniara joango, sistema matrilinealak eta ahaidetasun esperientzia oso bereziak egon arren, ahaidetasun utopiko edo alternatiboetan pentsatzeko interesgarriak izan daitezkeenak. Europako zirriborro bat egitera mugatuko naiz. Argi utzi behar dugun lehenengo gauza da ez dagoela galdu dugun mundu utopiko bat, baina badaude elementu batzuk iraganean edo beste leku batzuetan interesgarriak izan daitezkeenak.

Zer da ahaidetasuna? Antropologiaren historian 200 definizio egon dira, baina bi ekarri dizkizuet. Lehenengoa ez da antropologo batena,

baina antropologiatik asko irakurri eta edan du. Feminismoaren inguruan asko pentsatu du Judith Butlerrek eta bere *“Is Kinship Always Already Heterosexual?”* saiakeran, nire hitzekin esanda, honela definitzen du ahaidetasuna: *“ahaidetasuna bizitzaren erreprodukzioarekin eta heriotzarekin lotuta dagoen harreman multzo bat da”*.

Badago beste definizio bat antropologo klasiko batek emana, Marshall Sahlins, antropologian egon den eztabaida luze bati amaiera eman diona definizio honen bidez: *“ahaideak elkarren kide diren pertsonak dira, bat bestearen zati direnak, elkarrekin batera bizi direnak, beren bizitzak lotuta dituztenak eta elkarren beharrean daudenak”* (gaztelaratik itzultzen ari naiz: *“los parientes son personas que se pertenecen entre sí, son parte uno del otro. Están presentes en la vida de uno y otro y sus vidas están ligadas y son interdependientes”*).

Beraz, antropologiak zer dio modu orokorrean ahaidetasunez: pertsonak gure behar biologikoak baliatu ditugula ahaidetasuna antolatzeke, ahaidetasuna eta honekin batera kulturaren sorrera.

Zerk desberdintzen du ahaidetasuna harreman batzuetatik? Antropologiatik pentsatzen dugu gi-

zarteek, gizakiek, pertsonak, gure behar biologikoak guztiz soziala den instituzio bat eraikitzeke erabili ditugula. Behar dugu ugalketa, lo egin, jan, berotasuna, umeak hazi, etab. Eta behar horien gainean eraiki dugu gure ahaidetasuna. Horrek esan nahi du pertsonak behar biologikoak ditugun bitartean (eta izango ditugula beti, organismo biologikoak garelako), ba ahaide-tasuna existituko dela beti. Hori da ideia.

“Pertsonak gure behar biologikoak baliatu ditugu ahaidetasuna antolatzeke, eta honekin batera kulturaren sorrera”

Honek ekartzen digu gure ahaide-tasun kontzeptuan daudela gauza batzuk, adibidez adiskidetasuna eta auzokidetzak edo bizilaguna ere, nolabait ahaideekin nahasi egiten direnak. Beraien arteko mugak ez dira estankokoak, lausoak dira. Eta hori gure eguneroko bizitzan naturaltasun osoz ikusi dugu: gure gurasoen lagun minak bihurtu zaizkigu askotan “osaba” edo “izeba”, lagun bat bihurtu da figura familiar bat... Adibidez, Sandra Ott antropologoak Zuberoako nekazal bizitzaren



inguruan egindako azterketa batean esaten zuen ezkontzak beti izaten zirela modu preferente batean bizilagunekin. Orduan, ondoko baserrikoak bihurtzen ziren zure lehengusuak. Hau da, azkenean auzokideak bihurtzen ziren ahaideak. Beraz hiru gauza hauen arteko mugak ez dira horren argiak izan, baina ez dut uste oso garrantzitsua denik jakitea non dagoen gauza baten eta bestearen arteko muga zehatza.

Arazoa da gure kontzeptuan (eta hau da gauza bat gurea, Europakoa), ahaidetasuna lotu dugula beste kontzeptu honekin: odolarekin. Eta azken garaian, gainera, odola bihurtu dugu genetika. Orduan, pentsatzen dugu ahaidetasuna odolarekin lotua dagoela eta orduan batzuk direla “nire odolekoak”. Gurean, “odolaren” ideiak indar handia eduki du eta lotura genetikoa eta ahaidetasun harreman

artean erabateko kointzidentzia dagoela pentsatzera eramán gaitu. Antropologoek badakigu hori oinarririk gabeko ustea dela inork ez daukala beste baten odola. Banakako zerbait badago, hori odola da; norberaren odola! Eta esango genuke partekatzen den odol bakarra dela transfusioen bitartez egiten dena, eta horrek ez du norbait zure ahaide bihurtzen. Are gehiago, demostratua dago haurdun dagon emakumeak ez diola odol la pasatzen fetoari, umekiak bere odol berezkoa osatzen du hasieratik haurdunaldian. Beraz: inor ez da inoren odolekoa. Odolarena metafora bat da, European harreman konkretu batzuk adierazteko erabili duguna, baina ez da oinarria. Munduan zehar begiratuta bestelako oinarria duten ahaidetasunak ditugu. Ahaidetasuna finkatzeko metafora ezberdinak erabili dira: lurra, hezura, esnea, elkarrekin jatea edo lan

egitea, sutondo berean lo egitea edo etxe baten kide izatea.

Orduan, Europako azkeneko mendeetako historiari begiratzen badiogu (erdi arotik gaur arte), esan dezakegu ahaidetasunaren desmantelazio bat eman dela. Ahaidetasuna desegin da. Arrazoi bat da estatu moderno eta ahaidetasuna guztiz kontrako elementuak direla. Ahaidetasunak estatuaren kontzeptuarekin bat ez datorren sare bat sortzen du. Estatu indibiduo osatua dago eta ahaidetasuna justu kontrakoa da: ez banakoekin osatua baizik eta bata bestearekin dagoena, elkar lotua, bestearen parte dena, elkar dependentzian daudenak. Adibidez, gizarte matrilineal bat non lurra linajearen parte bat den: hori ez dator bat estatuaren kontzeptuarekin. Estatuarentzat lurra norbanakoenak dira, ez talde aldakor eta osoarenak. Beraz estatu kontzeptua bera, ahaidetasun sarearen kontra doa.

Badago historiadore zahar bat, pasa den mendekoa, Edward Shorter izena zuen. Berak Europa iparraldeko gizarte erabat komunitarioak hitz egiten digu (ez naiz mundu idilikoez ari, baina bai gizarte komunitario batez, nahiz eta, agian, ez izan guri gustatuko litzaiguen komunitatea). Bertan, harremanak sexu eta adinaren arabera antolatuta

zeuden, eta ahaidetasun sare trinko batez lotuta zeuden pertsonak. Nekazariak ziren gizarte horiek, baina industrializazioarekin nolabait sare komunitario hori desegiten doa.

“Inor ez da inoren
odolekoa. Odolarena
metafora bat da”

Zergatik? Gizarte industrial berrietan soldatapeko jendartea dagoelako. Soldata norberaren independentziarekin batera doa. Hau da, hirietan dagoen edo hirietara iristen den pertsona hori eta soldata bat daukana hilabetearen amaieran, “liberatu” egiten da bere erro edo sare komunitariotik. Eta horrekin batera berak (Shorterrek) azaltzen du nola sortzen den maitasun erromantikoa (orain denok kritikatzeko duguna). Ordura arte, ezkontza zen komunitateari balio zion gauza bat, ez niri norbanako bezala. Orduan, urbanizazioarekin eta ordainsariekin sortzen da “zurea” bilatzeko ideia hori, zure gustukoa dena, zu uler-tuko zaituena..., zuretzako egokia den pertsona, ez zure komunitatearen jarraipenerako egokia dena.

Europar bazegoen ere beste gauza oso potente bat: ahaidetasun

espirituala. Gaur egun bataioan geratzen zaigu soilik arrasatoa: aitapontekoa eta amapontekoa. Hau European ahaideak sortzeko modu bat izan da. Izan zenezakeen bat, bi, hiru, hamar... aitaponteko edo amapontekoak. Elizaren aurrean, zu komunitate kristauan barruan aurkezten zaituzten pertsonak ziren. Ahaide espiritualak zure guraso biologikoek egiten zizuten oparia zen. Beste pertsona batzuekin (normalean aberatsagoak, indartsuagoak, influentzia zutenak...) lotura bat sortzeko modua zen, zuretzat, bizitzan kontaktu onak izateko. Odolekoak ez ziren ahaidetasun paraleloak ziren.

Hau bere garaian asko zabaldu zen gauza bat da, batez ere klase baxuetan. Orduan elizak, horren sare trinkoak sortzen zituela ikus-tean, aitajauna eta amandrea pertsona bakarra izatea derrigortu zuen, eta ahal bazen, pertsona bakar hori zure odolezko ahaide bat izatea. Eta eredu hori da gaur egun jaso duguna. Modu asko dago figura honi deitzeko: aitapontekoa, amapontekoa, amatxi, aitaixi... Modu ezberdinak daude izendatzeko. Baina gaur egun izaten da izeba edo osaba bat edo amona edo aitona bat.

Beraz, Elizak ere ez zuen interesik ahaidetasunarekin eta desmantelazioaren barruan adibidez, klase

altuetan inzestoaren debekua zabaldu zuen 7. graduraino. Zertarako? Ezkontza kontzertatuekin bukatzeko, ahaide harremanen erreprodukzioa kontrolatzeko. Izan ere, sare boteretsuak izanda, ahaide taldeak elizaren konpetentzi bihurtzen ziren.

Esan nahi dudana da gure aurriziek esan ahal digutenaren kontra, ahaidetasunaren desmantelazioa eman dela. Agian ez zen ahaidetasun polit bat edo idiliko bat. Baina bai zen komunitarioa, pertsonen bizitzan erabateko garrantzia zuena. Komunitaterik gabe, bizitza ez zen posible.

Kontutan hartu behar dugu aipatutako hauek prozesu oso luzeak dira. Ahaidetasuna familia nuklearra ezagutzen dugun horretara mugatzera iritsiko gara. Eredu hegemonikoa: familia nuklearra, nahita nahiez heterosexuala eta umeak dituen.

Egin didazuen galderaren bigarren partearekin jarraituko dut: badago ahaidetasun hegemoniko bat?

Erantzuna da baietz, esan bezala ahaidetasuna familia nuklearrera mugatu da. Hau da gure modelo hegemonikoa. Antropologo bat bazen, Martine Segalen, esaten zuena: *“la familia nuclear es un ideal burgués”*. Zer esan nahi du honekin?

Ba burgesiak bultzatutako ideia bat dela, maitasun erromantikoa eta etxe domestikoaren idealak barne hartzen dituen. Gazteleraz bada-go esaera bat *“el casado casa quiere”*, hots, norberaren etxearen goraiapmena. Hau da, jendea ezkontzen denean etxe propio bat eduki behar duela pentsatzea. Etxe propioa: hori da familia burguesaren aspirazioa, non kideek intimitate bat, umeak izateko espazio bat, emakumearentzako espazio bat topatuko duten. Eta gizona joango da munda, kanpora, hor borrokatuko du (ze gizarte da borrokaren eremua), dirua irabaziko du eta mantenduko du unitate domestiko hori: autonomo, independientea, itxia eta intimoa. Hau burgesiak bultzatutako gauza bat da eta gainera ideal bat da, ez dena berez existitzen edo ez askotan, baina lortzera iritsi behar duguna.

Baina familia nuklearra aspirazio bat izan da errealitate bat baino, klase pobreek beti behar izan baitute harreman komunitarioa bizi iraupenerako (ahaide sare zabala auzokoak, lagunak). Eta European klase xehetan eta langile klaseetan jarraitu dute harreman fuerteak bizilagun sareetan, adibidez. Gure eredu hegemonikoak du ideal hori, baina gero agian ez da horrenbeste bete, edo ez guk pentsatzen dugun adina.

Orduan, zer gertatu da azken hamarkadetan? Gauza asko. Inportantea izan da, oso, European dibortzioak ekarri duena. Honek berrindartu ditu amaren aldeko sare denak: ama, izeba, amonak lehen-gusuak... horiek denak, inportantzia handi bat hartzen hasten dira. Lehen pixka bat borratuak zeuden eta orain indartzen dira.

“Hau burgesiak bultzatutako gauza bat da eta gainera ideal bat da, ez dena berez existitzen edo ez askotan”

LGTBI+ mugimendutik familiaren aldarrikapen handia egon da. 80 hamarkadan hasi zen San Frantziskoko komunitatetan. Mugimendu honetan aldarrikatu ziren aukeratutako familia sareak, elkar laguntza eta babesa ematen zioten pertsonak osatuta, baina ez zirenak odolekoak (Kath Weston izan zen aintzindari gai hau aztertzen). Hots, gure ahaideak ez daude aldez aurretik definituak, baizik eta guk aukeratzen ditugun horiek dira. Denborarekin, mugimendu guzti honetan, teknologia erreproduktiboaren garapenari lotuta, “aukeratutako familien” ideia umeak dituzten

familietara zabaltzen joan da. Honak guztiak, gure familiaren kontzeptuan eragin du.

Teknologia erreproduktiboek familiaren birpentsaketan paper garrantzitsu bat jokatu du. Teknologia erreproduktiboak aspaldi existitzen dira. Duela hamarkada batzuk arte animaliekin erabiltzen zen eta orain hasi dira emakumeekin erabiltzen pertsonen ugalketaren gestiorako. Teknologia hauen helburua modelo hegemonikora heldu ezin zirenak laguntzea zen, “familia eredu onera” iritsi zitezen. Baina honetaz gain, bestea ere gertatu da: jendea teknikak modu imaginatibo batean erabiltzen hasi da. Hau da, espontaneoki sortu den imaginazio bat. Gero beste gauza bat da batzuk esatea “*ostras! Hemen negozio bat daukagu*”. Baina teknologiaren erabilpen imaginatibo horrek eszenatoki erabat berriak sortu ditu.

Orduan, zer esan dezaket azkeneko galderaz: “ahaidetasun modu berriez hitz egin daiteke?”

Ez eta bai. Zergatik ez? Ahaidetasunak ez duelako forma konkretu bat, eta zerbait berria dagoela esateak zerbait zaharra dagoela suposatzen du, eta ahaidetasuna askotarikoa izan dela historian esan dugu lehen. Bestalde, ordea, ahaidetasun kontzeptu berriak dau-

“Teknologia hauen helburua modelo hegemonikora heldu ezin zirenak laguntzea zen, ‘familia eredu onera’ iritsi zitezen”

dela eta berrikuntzak dakartzatela bistan da. Halaz ere, proposatzen ditugun gauza berriak izan daitezke oso berritzaileak, baina gure sozializazioak oso potenteak dira. Gauza bat da nik zer proposatzen diodan nire buruari eta nik zer nahi dudan, baina gero gizarte osoaren sozializazioak egiten du zure proiektu hori errealitatera moldatu behar izatea. Ahaidetasun forma berriak dira, bai, baina mugatuak daude. Zer planteatzen dut honen aurrean? Frustrazio gutxi. Ahal duguna egiten dugu eta aurrera.

Hala ere, Haraway-en aldarrikapen hau errekupeatu nahi dut: “*Egin ahaideak, ez umeak!*” Iruditzen zait hori izan behar duela gure aldarrikapena. Nahiz eta planetaren gain populazioa presente duen arren, ez da umeak edukitzearen kontrako proklama bat bezela ulertu behar. Umeak izan nahi dituenak, izan ditzala. Ezin diogu jendeari umeak ez izatea exigitu. Ezta ere

kontrakoa. Harawayren mezua da umeak eduki edo ez, ez du esan nahi ahaidetasunari errenuntzia egitea. Ahaidetasuna ugalketatik ezberdindu behar da.

“Gauza bat da nik zer nahi dudan, baina gero gizarte osoaren sozializazioak egiten du zure proiektu hori errealitatera moldatu behar izatea”

Amaitzeko, bi gauza bakarrik. **Hi-rugarren galderari lotuta: zeintzuk dira utopien gakoak eta nola konfiguratu ahaidetasunak?**

Alde batetik uste dut feminismoak eta antropologiak edo antropologia batzuk, eduki dutela beti beldur handi bat biologikoa denari. Eta zentzu horretan ahaidetasunari, biologikoarekin harremana duelako.

Nik uste dut gure izaera biologikoa birpentsatu behar dugula. Organismo biologikoak gara eta galdu behar diogu beldurra gure aspektu biologiko horri. Feminismoak beti eduki dio beldurra, emakumeen posizioa gizartean naturarekin justifikatu delako, eta horrek argu-

mentu hau sortu du: *“naturala dena alboratu, ez dugu horretan pentsatu nahi”*. Nik uste dut birpentsatu behar dugula zer den biologikoa, kulturatik separatua ez dagoen gauza bat bezela, elkar hartuta dagoena baizik. Honek laguntzen digu organismo biologikoaren izaera hori birpentsatzen.

Termino praktikoetan, iruditzen zait beti ona dela legeak moldatuz, egon daitezkeen familiaren ideiak zabaltzek. Jendeari bere ahaidetasun eta familia ereduak eta proposamenak posible egiteko lagungarri izan daitezen aldaketa legal denen alde egon beharko genuke: patria potestad, herentzia, ezkontza eta gauza guzti hauek. Adibidez, homosexualen ezkontzekin gertatu dena. Iruditzen zait legalki aukera hori zabaltzek eszenatoki zabalagoa izaten laguntzen duela eta jende gehiagok bere eredu aurrera eramateko aukera eskaintzen duela. Eredu horiek ez dira idilikoak izango, baina balioko dute birpentsatzeko eta aurrera egiteko.

Danele

Sarriugarte Motxales

Idazlea eta itzultzailea

Ahaidetasunen fikzioak eta utopiak

Nik batez ere fikzioaren ikuspegitik zer ekarpen egin daitezkeen aztertu dut, ikuspegi horretatik nire ekarpena egiteko eskatu baitzenidaten. Hala ere, galderak erantzuten hasi aurretik hainbat ohar eman nahi ditut. Nik ahaidetasunaren definizioa Euskaltzaindian begiratu dut zeren kuriositatea neukan, eta ahaide hitzak hiru adiera ditu:

1. Norbaitentzat bere familiako beste norbait.
2. Espezie batentzat jatorriz aski hurbila den beste espezie bat.
3. Hizkuntza batentzat jatorri berdina duen hizkuntza bat.

Ahaidetasuna da ahaideen arteko lotura, eta adibideetan jartzen du, besteak beste, *odol ahaidetasuna*. Beraz, ahaidetasuna ez da halaber harrez odolekoa Euskaltzaindiaren arabera.

Iruditzen zait *guay* dagoela hitzak berak badaukalako zabaltasun eta malgutasun handia. Alegia, ahaide-tasuna gauza abstraktuen artekoa izan daiteke (hizkuntzak), animalien artekoa izan daiteke, pertsonen artekoa izan daiteke... Eta pertsonen artekoa denean ere ez du zertan odolekoa izan.

Orduan, ahaidetasuna nik zentzu horretan planteatzen dut, eta planteatzen dut gure ahaideak, edo ahaidetasun feminista hori, gure egunerokoan gure zaintza-sarea osatzen duten pertsonak direla. Batzuk agian dira odolekoak, eta beste batzuk ez. Ahaidetasun hori da interesatzen zaidana eta hori da bilatu dudana gero aipatuko ditudan testuetan.

Fikzioaren kasuan ohar txiki bat egin behar dut: literaturak zertarako

balio dezake? Batzuetan iruditzen zait bilatzen ditugula praktikan jartzeko ereduak. Baina lan literarioa ez da manifestu politiko bat, ez da alderdi politiko bat proposatzen ari den neurri sorta bat. Ez da hain praktikoa, ez da proposamen zehatz bat. Batzuetan kontraesanak bilatzen zaizkie baita ere obrei. Igual hemen ez, baina, gertatzen zait batzuetan esaten didatela *“baina liburu honek ez du erakusten...”*; obra bat da, ez da azterlan soziologiko bat. Bata eta beste ez daude kontrajarrita, baina helburuak desberdinak dira, eta harremanak desberdinak dira. Errealitatearekiko harremana eta egunerokoarekiko harremana desberdina da, ez da hain literala.

Baina literaturak eta arteak bete ditzakete funtzio batzuk. Eta niretzako bat da erakustea ez dagoela modu bakar bat gauzak egiteko, eta pentsamolde hori oso nabarmena da European: ama gauza bat da, aita beste gauza bat da, baina ez du zertan horrela izan. Uste dut literaturak eta arteak, adibidez, lagundu dezaketela errepresentatzen ez dagoela modu bakar bat ezer egiteko, eta gaur egiten den modua ez dela modu bakarra. Egon direla beste modu batzuk eta egon daitezkeela etorkizunean modu gehiago.



“Lan literarioa ez da manifestu politiko bat, ez da alderdi politiko bat proposatzen ari den neurri sorta bat”

Horren harira, fikzio errealistari buruz eta fikzio espekulatiboari buruz hitz egingo dut: 1) fikzio errealistak balio dezake iraganean gauzak egiteko egon diren beste modu horiek erakusteko, eta baita ere erakusteko beti ez dela orain den moduan izan eta ez duela zertan beti horrela izan. 2) Eta fikzio espekulatiboak, berriz, erakusten du hemendik aurrera gauzak beste modu batera egin daitezkeela, ez duela zertan beti berdina izan.

Fikzio espekulatiboak etorkizunera proiektatzen du. Baina uste dut bietan eredu bakar horren kontra egiteko posibilitate hori egon daitekeela eta bietan esan daitekeela: egin daitezke gauzak horrela, eta beste modu honetara ere bai, eta beste honetara ere bai...

Errealitatean aniztasun hori existitzen da, baina ez da kontatzen, ez da erakusten. Ez da bakarrik ez duzula topatzen zure familia eredu edo ez duzula topatzen irudikatzen duzun eredu. Batetik, arazo hori dago: errealitatearen zati batzuk ez direla islatzen. Orduan badaude errealitate batzuk existitzen direnak, nahiz eta fikzioan islatu ez, eta beste batzuk hainbeste azpimarratzearen poderioz sortzen direnak, edo aukera bakartzat erakusten direnak.

Iruditzen zait literaturak aniztasun hori islatzeko balio duela, baina gero hartu eta hori aplikatu... bada beno, ez da helburua.

Utopiari buruz pentsatzeko niri balio izan dit, adibidez, *Utopía Queer* liburua (José Esteban Muñoz). Gero aipatuko dut berriz ere. Momentu batean esaten du: utopia ez da "*hau horrela egin behar da*". Eta gainera ikusi ditugu mugimendu utopikoak gauzatu direnak eta gero ez da izan hain utopikoa. Zerumugara zenbat

eta gehiago hurbildu, gero eta urrutiago dago.

Orduan, hori esanda, galderei helduko diet.

Lehendabiziko galderan zenioten: **ahaidetasunak zein leku izan du fikzioan, eta zehazki euskal fikzioan, kasu honetan literaturaren eremuan? Nola irudikatu da ama ona? Eta alderantziz, nola irudikatu dira bestelako amatasunak?**

Lehen galderari ganoraz erantzuteko azterketa bat egin beharko litzaiteke eta nik ez dut halakorik egin, baina iruditzen zait oso interesgarria izango litzakeela. Esango nuke harreman konkretuei buruzko lanak bakarrik egin direla, amatasunari buruzkoak batez ere, eta ahaidetasunaren kontzeptua lantzeak gauzak ekar ditzakeela. Amatasunari buruz konkretuki bai egin dira lanak, urrutira joateko beharrik gabe (*Ez amatasunen* jardunaldietan egon zen gaiari buruzko mahai-inguru bat, eta Iratxe Retolazak osatuta dauka euskal literaturan islatu diren ama ereduaren zerrenda bat. Mahai ingurua bera ikusgai dago interesa duenarentzat.

Orduan, ahaidetasunari nola heldu zaion literaturan, susmo orokor batzuk botako ditut, eta gero azkenaldian irakurri ditudan liburuetan ikusten ditudan bide interesgarri

“Errealitatean aniztasun
hori existitzen da, baina
ez da kontatzen, ez da
erakusten”

batzuk aipatu nahi nituzke. Zientzia fikziozkoa ez den euskal literatura aipatuko dut hemen, eta zientzia fikziozkoari edo espekulatiboari hurrengo atalean helduko diot:

- Oso aipatzekoa da Antxiñe Mendizabalen, *Odolekoak*. Iruñeko familia baten hiru belaunaldiaren historia da, pertsonaia pilo bat agertzen dira, erakusten da zelako sare handia den pertsona baten bizitza, eta asko gomendatzen dut eta bete betean heltzen dio gaiari.

- *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan*, (Metrokoadroka) antzezlan. Hiru pertsonaia daude, familia bat da, baina ez da esaten inoiz zein den aita, zein den ama, zein umea. Oso grazioso izateaz aparte, horrelako gaiak lantzen ditu.

- *Ez erran inori*, Maddi Ane Txoperenarena. Haur bati auzoko batek eraso bat egiten dio. Ez da odoleko ahaide bat, baina iruditzen zait literaturak egin dezakeen beste gauza bat dela kontatu nahi ez diren gauza batzuk eta gai batzuk ateratzea. Eta iruditzen zait liburu honetan

ateratzen duela gai bat oso inportantea. Hemen ahaidetasunen utopiak nahi ditugu eraiki baina bueno, familia ere oso toki txungoa da jende askorentzat eta horri buruz hitz egiteko bide bat eman dezake.

- *Eraikuntzarako materiala*, Eider Rodriguezena. Aita-alabaren arteko harremana, eta aita alkoholarekin duen harremana lantzen du. Uste dut errealitate sozial bat islatzen duela eta nobela baten bitartez trapu zaharrak ateratzeko balio dezakeela, Txoperenaren lanaren ildo beretik.

- *Gu orduko hauek*, Garazi Arrularen liburuan ere badaude ahaidetasun harreman batzuk. *Lurraz beste* liburuan ere, ipuin batean haur bat jaiotzen denean bere aita kartzelan dago eta beranduago ezagutzen du. Errealitate zabal hori ipuin batean erakusten du.

Baita ere aipatu nahi nuen, memoriarekin lotuta, kartzelako ariketa horrekin lotuta, Mari Luz Estebanen poema bat, *Birrotxak* poema Andre zaharraren manifestua-koa.

“... iragana egurastu behar da
etorkizunak arnasa har dezan.”

Amaiera honek esaten du nik adierazi nahi nuena, eta gerora egin nion elkarrizketa batean ere Mari Luzek hau azpimarratu zidan: “be-

rrirakurri behar dira bizitza horiek, ze halako elkarrizketa informaletan esaten da, nire izeko ez zen ezkondu, baina sozialki ez dugu hori dena berrirakurri eta iruditzen zait funtsezkoa. Emakume horiek hala hautatu zutelako edo beste hainbat faktorerengatik geratu ziren bikote barik edo bizi ziren lagunekin, edo ahizpekin edo familiarekin, eta kontuan hartu behar da. Gaur egun elkarbizitzaz hitz egiten dugu, baina ez dugu aurreko horiekin egiten lotura.”

Euskal Literaturan, adibidez, badago Ekhiñe Eizagirren poema bat ere *Familia Inposatua* deitzen dena eta beste bat *Familia Nuklearra* izenekoa, kritika zuzena egiten duena. Poesian kuriosamente horrelako asko dago.

Bigarren galdera zen: zer erreskaltu daiteke zientzia fikzioan idazle feministek ahaidetasunen gainean idatzitakotik?

Iruditzen zait hor oso lotura handia dagoela. Haraway aipatu du Elik, uste dut Julek ere aipatuko duela eta bai *Cyborg-aren manifestuan* eta *Seguir con el problema* liburuan (zientzia fikzioari zientzia espekulatiboa deitzen dio) asko lotzen da irudimenaren funtzioa transfeminismoaren lanarekin.

Irudimena berriro ere lotuko nuke lehen aipatu dudana helburuare-

“Hemen ahaidetasunen utopiak nahi ditugu eraiki baina bueno, familia ere oso toki txungoa da jende askorentzat”

kin, hau da, erakustea ez dagoela gauzak egiteko modu bakar bat, gaur egun dagoen modua ez dela bakarra, eta gainera ez dela aski. Azken ideia hori José Esteban Muñozena da: batzuetan, gaur egun bizitza antolatuta dagoen moduan, ez da nahikoa guretzat, irudikatu behar dugu beste zerbait.

Orduan, hortik, fikzio espekulatiiboak ematen duena da irudimena, proiektzioa... eta etsipenean erori ordeztu beste alternatiba batzuk egon daitezkeela irudikatzeke indarra.

Utopia sartzearena oso interesgarria iruditzen zait. Zientzia fikzioan lan distopiko asko egon da, eta horrek nolabait eragotzi izan du gauzak beste era batera izan zitezkeela erakustea. Eta horri guztiari kritika bat egin zaio eta ni kritika horrekin ados nago. Utopiak irudikatzearen alde nago.

Dena den, hor dago *Neskamearen ipuina* liburua. Antza, seriearen hasieran bi emakumez osatutako

bikoteei, haurrak dauzkatenei, umearen gaineko eskubidea kentzen diete. Liburua 1985ekoa denez bere garaian bezala ulertu behar da. Kokatu behar dira distopia horiek garai horietan zeren bizitza horiek distopikoak ziren 1985ean, baina, uste dut salaketa horiek emankor-
rak izan zitezkeela garai horretan.

“Batuetan, gaur egun
bizitza antolatuta dagoen
moduan, ez da nahikoa
guretzat, irudikatu behar
dugu beste zerbaite”

Literatura espekulatiboak lagundu dezakeena da probokazioak egiten. *Maricas malas* liburuan egileak (Christo Casas) egiten duena, adibidez: irudikatzen du sexu berekoen ezkontza lortu ez balitz, eskubide hori edukiko ez bagenu, zer egin ahalko litzatekeen. Azkenean lortu da helburu hori eta askotan galdetzen diotela dio: “¿qué más queréis? Ya os podéis casar”. Berak onartzen du dena nahi duela.

Fikzio espekulatiboko adibide batzuk aipatu nahi nituzke amaitu aurretik:

• *Zirriborroak eta gero* (idazle ugari): fikzio espekulatiboko 10 ipuin. Es-

kailerapeko (Karmele Jaio) eta Uxue Alberdiren *Ibaia* fabuletan badaude beste ahaidetasun batzuk.

• Monique Wittig-en, *Les Guérillères*: gerlari batzuk dira protagonistak eta beraiei zuzentzeko erabiltzen duen pronombrea *elles* da jatorrizkoan, frantsesez, *ellas* gaztelaniaz. Hemen (mintegian) *ellas* ginateke. Baina hemen pertsona bat gizon bezala identifikatzen dena egongo balitz... berez arau gramatikal nagusiaren arabera, *ellos* ginateke. Agerikoa dirudi orain, baina oso erradikala izan zen atera zenean *elles* izenordaina erabiltzea frantsesez. Iruditzen zait hor hizkuntzaren eremura ekarri zuela irudimen ariketa hori, eta liburu osoan zehar asko entzuten da *elles* hori, nabarmena da. Liburu hau ere gomendatzen dut.

• Gomendatu nahiko nuke baita ere Lucía Egaña eta Helen Torres egiten ari diren lana, bakoitza bere aldetik. Helen Torres da Haraway gaztelaniara itzuli duena; eta Lucía Egañak duela gutxi proiektu bat atera zuen non *parentesco queer*-ari buruz hitz egiten duen.

• Eta azkena nahi dudana da... Hau ez da espekulatiboa. Gabriela Wiener, Perun jaiotako baina aspaldi Madrilén bizi den idazle bat da. Hiru pertsonako harreman batean bi seme-alaba dituzte eta *Qué locura*

enamorarme yo de ti antzezlanean kontatzen du nola eduki zuten krisi bat. Bi emakume eta gizon bat dira, eta bi emakumeetako bat erditu zen. Eta erditu eta gero, beste pertsona batzuekin enrollatu nahi izan zuen eta krisia izan zen. Horren kudeaketa kristoren hostia izan zen, berez polimaitasunean izan zutelako umea. Inportantea iruditzen zait horrelako krisiez ere hitz egitea.

José Esteban Muñozek esaten duena aipatu nahi dut. Iraultza batzuk porrot egiten badute (zer da porrot egitea?), ez dugu automatikoki ondorioztatu behar ez duela funtzionatu. Izan ere, bizitza aldaketa da, eta bizitza amaitzen da. Porrot horiek denak gure irudimenaren parte bihurtu behar dira eta, beraz, ez dira hartu behar porrot bezala, baizik eta diren bezala: horrela izan da, gauzak beste modu batean egiteko saiakera egin da, hortik ikasi, eta amesten segitu, irudikatzen segitu.

Eta nik hori esan nahi nuen.



JULE

Goikoetxea Mentxaka

Aktibista feminista, politologoa eta EHuko irakaslea

Ahaidetasunen fikzioak eta utopiak

Entzun zaitugu holobionteez hitz egiten, bikotea ardatz ez duten elkarbizitza eta krianza ereduez... Betiere Euskal Herria feminista bat helburu, nolako ahaidetasunak beharko genituzke?

Hori aurrerago erantzungo dut, iruditzen zaidalako oraindik ere familiaz hitz egiten dugunean, edo amatasunaz, hitz egiten dugula amodio erromantikoaz; nahiz eta kritika sartzen diogun. Orduan, batetik, garbi utzi behar dugu gaur egungo familia, familia heteronuklearra, koakzio bidez sortzen dela, hain zuzen ere, biolentzia zuzenaren bidez eta biolentzia zuzen jarraituaren bidez, estatuari esker gainera. Horregatik, ni ez nago oso ados estatuak ahaidetasunak neutralizatzen dituela defendatzen duten ikuspegiekin. Ikusten dut kristautasun prozesua hasi ze-

netik, munduaren indibidualizazio joera nabarmena ematen dela mendebaldean, bere desabantaila eta abantailekin; izan ere, prozesu hauetan lehen ez genituen askatasun pila bat lortu ditugu. Ze gertatzen da? Ba prozesu hori guztiz patriarkala dela hasieratik. Frantziar iraultza bezala, nahiz eta hor eskubide asko ere lortu ziren. Menpeko izatetik, teorizatzen hasi zen gizaki librearen teoria, baina gizaki librea nor zen? Argi dago: zakila zutenak, propietateak eskuratzeko lan egiten zutenak eta noski, zuriak.

Prozesu horiek beraz, emakumeoi asko balio izan digute gu ez gare-lako indibiduo bezala hezi baizik eta besteengandik sakrifikatu behar duten gizaki horiek bezala. Prozesua ez da, beraz, berdina izan batzuentzat zein besteentzat. Beraz, kontuz: indibidualizazioaz



hitz egiten dugunean batzuk beste batzuk baino gehiago duten joeraz zein aukeraz hitz egin behar dugu. Zeren eta munduan lan ez ordaindu guztia, ia-ia osoa hobe esanda, emakumeek egiten dute. Eta hori ez da indibidualismoa, hori esklabismoa da.

Bestetik, lan ez ordaindu hori egiten da %85ean familian, familian! Familia da beraz, emakumeak sortzen dituen gunea, eta emakumeak zer dira? Erlazioetan, edo hobe esanda, desposesio erlazioetan sortzen diren gizakiak. Ez dira alua dutenak, ez dira ez dakit ze kromosoma dutenak, ez. Emakumeak dira, desjabetze erlazioen ondorio. Ez dago beste definizio esentzialistarik.

Orduan, zaintzarekin ere kontuz. Nik ulertzen dut, eta are gehiago greba bat egingo dugunean, zaintza erreibindikatzera koan demanda zehatzak jarri beharko ditugula mahai gainean. Finean, aldarrikapenekin,

gero sindikatuek negoziazioak egin behar dituzte. Zaintzaz hitz egiten dugunean aldarrikapenak eginez, izan ratioak, soldatak, e.a. zaintza erabiltzen dugu eginkizun zehatzak izango balira bezala. Alegia, zaintza izango balitz bezala ipurdia garbitu, edo biberioia eman edo jaten eman. Ez. Beno, bai eta ez.

Zaintza ez da soilik eginkizun bat, ez da gauza bat. Zaintza da, emakumeek egiten duten guztia. Lan ez ordaindua oro har, bai, baina ia guztia da, subalternoek egiten dituzten gauzak (*kasu emakumeak*).

Zergatik esaten dut hau: zuk etxean janaria prestatzen duzunean, edo ipurdia garbitzen duzunean zaintza lanetan zaude. Baina zu jatetxe batean janaria egiten zaudenean derrepente ez da zaintza da ostalaritza. Ostras! Orduan, kontuz! Zeren eta zaintza ez da gauza konkretu bat, da desposesio harremanetan emakumeek egiten dutena. Hori guztia. *“No tiene conte-*

nido; es una relación de desposesión”.

Eta hau badakit kostatzen zaigula, baina hor dago Emagin Elkartea, jartzeko gauzak erdigunean eta gauza hauek jorrazteko patxada gehiagorekin, egunerokotasunean ez dugun patxada horrekin [sindikatuetan, alderdietan ez dagoen patxadari egiten dio erreferentzia].

Askotan familiaz hitz egiten dugunean ez zaigula esaten gune desjabetu nagusia dela, eta hor feminismo komunitarioak [Adriana Guzman aipatzen du] beti esaten du: “¿dónde aprende la humanidad

a explotar? En la casa, donde se ve la diferencia entre los miembros madre-padre / hermano-hermana”. Beraz, humanitateak ikasten du esplotazioa etxean, familian.

Ekomendekoak eta elkarmendekoak garela esaten dugu feminismoan. Baina horrek zer dakargure egunerokoan? Zer ari gara aldatzen? Eta zer aldatu beharko genuke?

Garrantzitsua iruditzen zait momentu honetan Tabet-en testu hau irakurtzea: (eta barkatu ez dudalako itzuli)

“La reproducción humana y la fertilidad de las mujeres son invocadas a menudo en el discurso común de las ciencias humanas cuando se intenta explicar o justificar la desigualdad entre hombres y mujeres. La posición de inferioridad o subordinación de las mujeres se debería en última instancia a factores biológicos, naturales, en suma al «papel» de las mujeres en la procreación. Así, la procreación sería un hecho biológico totalmente por fuera de las relaciones sociales y las sociedades que participarían a este acontecimiento *a posteriori*, por así decirlo, reintegrarían en lo social, mediante rituales, reglas, etc., estas manifestaciones espontáneas de la naturaleza.

Pero una biología así de cómoda para legitimar una dominación parece algo sospechosa. ¿Que hay de biológico, natural en todo esto? Biológica o natural es la capacidad de las mujeres de llevar a maduración los óvulos, de llevar a cabo un embarazo ya empezado, mas no lo es el número de hijos dados a luz durante los siglos. Entre el óvulo y el hijo, entre

la capacidad de procrear y el hecho de procrear, encontramos las relaciones sociales entre hombres y mujeres. Entre la capacidad de procrear y la procreación puesta en actos, está la historia de las relaciones de reproducción, la historia de la reproducción como explotación.

Veamos ahora cuales conceptos se utilizan normalmente en las ciencias sociales para el análisis de la reproducción. Estas nociones son más elaboradas en demografía, pero se hallan presentes en formas más elementales en todas partes. Se define como fertilidad natural la fertilidad de parejas o mujeres que no usan anticonceptivos ni intentan deliberadamente espaciar los nacimientos y limitar el número de hijos. Cuando al contrario se dan intervenciones sobre los nacimientos, y más exactamente una intervención limitativa, se habla de fertilidad controlada o regulación de la fertilidad.

La dicotomía establecida entre fertilidad natural y control de la fertilidad, o fertilidad controlada, es un producto ideológico: efectivamente, es la construcción de una ideología «científica» —junto a las formas de ideología locales y populares— que permite suprimir tranquilamente del análisis de la reproducción las relaciones de poder, las relaciones sociales entre hombres y mujeres, y considerar al final la reproducción como algo que se refiere solo a las mujeres, o incluso como un dato vinculada a la edad de las mujeres.

La divergencia entre la producción de óvulos y la producción de niños dista mucho de ser neutra: es precisamente el lugar donde se sitúan los conflictos y las contradicciones. Aquí se juegan las relaciones entre hombres y mujeres, la organización social de la humanidad, y como queda claro, el intercambio y la apropiación de las mujeres, es decir su dominación.

Si consideramos los medios de control de la reproducción, nos encontramos frente a formas de coacción que incluyen varios grados de violencia, y que pueden llegar hasta la utilización directa de las mujeres como animales reproductores.

Pero la imposición de la reproducción va mucho más allá de estos casos: es mucho más general y se realiza a través de una compleja serie de medios de presión social, física o ideológica presentes en toda la secuencia reproductiva. Vamos a examinar los más importantes.

En primer lugar, la especie humana es una especie relativamente poco fértil: son bastante limitadas las probabilidades de concebir con una sola copulación sexual en la especie humana, estadísticamente hablando, no basta con una sola copulación para producir un embarazo y en el caso de la inseminación artificial, es necesario realizar tres o cuatro ciclos de tres inseminaciones cada uno (obviamente durante el periodo fértil).

A esta relativa infertilidad de nuestra especie, se tienen que añadir lo siguiente:

1. El impulso sexual no está conectado con la procreación por vía hormonal: trivialmente no hay sincronización entre ovulación (o sea, el momento de fertilidad) y deseo sexual. El impulso sexual es intermitente y no es cíclico ni estacional.
2. El momento de fertilidad no tiene manifestaciones exteriores ni está indicado y acompañado por un impulso sexual más fuerte que atraiga o obligue a la relación (lo que en otras especies es el estro, el «celo»).

De allí la dificultad – a diferencia de lo que ocurre en otros mamíferos – de determinar el momento en el cual la concepción es posible. Esta dificultad está agravada por la fuerte variabilidad del ciclo y conectada con la variación de diferentes factores (como la duración promedio del ciclo de cada mujer, el momento de la ovulación en el ciclo, la edad de la mujer).

El problema entonces puede formularse de la siguiente manera: si las mujeres no están ligadas por condicionamientos hormonales a la reproducción, si la biología no las obliga a

la procreación (y además, su sexualidad tiende a ser polimorfa y no vinculada a la hipoteca reproductiva), ¿cómo se ha obtenido la fuerte especialización reproductiva de la sexualidad femenina? ¿Cómo se asegura la coincidencia entre el momento de la ovulación y el apareamiento, ya que el impulso sexual no está sincronizado con ese momento y éste no es identificable con seguridad? En ausencia de un impulso, como el celo en los demás mamíferos, que conduzca las mujeres a querer la relación cuando es posible la concepción, y sin conocimiento del momento fértil, lo que garantiza posibilidades máximas de concepción, es la frecuencia y regularidad de la exposición al coito.

Aún con todas las diferencias que presenta en las varias sociedades, el matrimonio parece ser la institución que garantiza esta cobertura de las posibilidades de fecundación. O sea, es la institución que asegura una exposición regular al coito y por lo tanto una exposición permanente al riesgo de embarazo. Quiero subrayar que estamos hablando aquí de una exposición al riesgo socialmente organizada: a la mujer se la expone socialmente al riesgo. Exposición al riesgo precisamente en el sentido de una exposición institucionalizada.

La domesticación de la sexualidad femenina o, su equivalente, la domesticación de la mujeres a la reproducción, es una operación lenta y continua. Se pueden indicar algunos modos y momentos específicos en la infancia y/o adolescencia, que sirven como preparación al matrimonio, otros durante el mismo matrimonio.

En general, es gracias al matrimonio que se obtiene regularidad y frecuencia en las relaciones sexuales. El matrimonio parece ser entonces la respuesta social que se le ha dado a las especificidades de la sexualidad de las mujeres, en primer lugar su carácter intermitente y no necesariamente relacionado a la reproducción. Si de hecho las mujeres no están biológicamente obligadas a procrear ¿Cómo se garantiza la reproducción? F. Beach (1974) nota que no es exacto

decir, como habitualmente se hace, que las mujeres están siempre receptivas: ellas están, más bien, en una condición de «siempre copulables» (notemos de paso la teorización implícita o inconsciente de la violación). El matrimonio es (y en particular ha sido) la clave que transforma el «no siempre receptivas» en «siempre copulables», el operador que de esta manera asegura una exposición permanente al coito y por lo tanto al riesgo de embarazo, y así eventualmente garantiza una fecundidad máxima.

Para que el matrimonio pueda ser el sitio óptimo de la reproducción, gracias a la exposición permanente de las mujeres al riesgo de fecundación, es necesario un aparato complejo de coacción física y presión ideológica.”

Tabet, P. (2014). *Los dedos cortados*. Centro Editorial de la Facultad de Ciencias Humanas de la Universidad Nacional de Colombia.

Istorio hori ez da kontatzen, klaro, zeren onartzen dugu pixka bat bel-dugarria suertatu daitekeela.

Askotan esaten da: gure utopietan goazen baldintzak jartzea bakoi-tzak nahi duena egin dezan. Baina gero zer gertatzen da? Gizartearen %80ak berdina nahi duela: ama izan, bikotea eduki, emakumeek ile luzea eraman, gizonak motza... Argi izan behar dugu: *“esto no elegimos; se llama reproducción social, no se llama deseo ¡ni libertad!”*.

Diskurtsoa oso oso barneratua dugu oraindik uste dugulako gure desioak naturalak direla. Gure benetako

desioak direla; egun bikotean bizi nahi izatea, eta ia-ia jende guztiak desira hori izatea, milaka urtetan eta zehazki azken urteetan gainera emakume moderno eta gizon modernoek hitz egiten dugunean Frantziako iraultza eta gero. Ba nik argi dut; bizirauteko utzi diguten modu bakarra izan da emakumeak matrimonioan sartzea, eta beraz hori bihurtzen da momentu batean desio. Guk biziraupenagatik egin ditugu bikoteak eta uste dut hori ez dugula ondo gorpuztu. Bestela ez ginatekeelako existituko! Baiezta-pen hau argia da.

Orduan, beraz, berriz esaten dut, kontuz honetaz hitz egiten dugunean; bat, amatasunean ez dago ezer naturalik; bi, biologia politikoa da guretzako. Zergatik? Testuinguruak biologia aldatzen duelako eta biologiak testuingurua. Segun eta zein kontestu daukagun, segun eta zer jaten dugun ba biologia mota bat edo beste izango dugu.

“Guk biziraupenagatik egin ditugu bikoteak eta uste dut hori ez dugula ondo gorpuztu. Bestela ez ginatekeelako existituko! Baieztapen hau argia da”

Gure biologia aldatzen dugu teknikaren bidez eta jarraitzen dugu pentsatzen askotan biologia dela zerbait naturala eta bestea dela politikoa. *¡Que no!* Biologia polititikoa da. Ez da existitzen ez delako, baizik eta kulturalki eraldatzen dugulako kontestua.

Esan dizuet beraz matrimonioa nola sortzen den, eta argi dago ezin dela azaldu azken belaunaldietan gertatu dena krititika patriarkala sartu gabe. Hau da, oinarrian, azaldu gabe zer sistema politikoetan bizi izan garen, azaltzeko zer nolako ahaidetasunak sortu ditugun. Bes-

tela ematen du jendeak aukeratzen zuela eta ez! Barkatu, gu biolentzia zuzenaren bidez iritsi gara iritsi garen lekura. Eta ez gauzak gertatzen zihoazelako. Hau da, sistema politikoetan eta giza sistematan estrategiak eta helburuak daude eta hori da, hain zuzen ere, gizakien helburuetako bat. Ez dela kasualitatea beraz, eta berriro, ez dela bikotearen desioa ez dela gratuitoa eta desioa aldatzea gure esku dagoela. Desioak berriro sortu egiten direlako, beraz segun eta zein gizartetan eta zein kulturatan zauden desio batzuk edo beste izango dituzu. Eta hori Mari Luz Estebanek oso ondo esplikatzen du bere liburuan.

Horregatik, guk askotan esaten dugu heterosexualitatea ez dela pultsio bat, baizik eta erregimen totalitario bat. Eta nik uste dut hori oraindik ez dugula ongi gorpuztu. Denbora behar delako, hau ez delako inon irakasten, ez dizute institutoetan esaten: *“vives en un sistema totalitario heterosexual”* eta gure helburua da heterosexualen ejertzito bat sortzea, sistema erreproduzitzeko. Ez dizute hori esango, eta familia dela heterosexualen ejertzitoei osatzen duena. Argi dago, hori ez digute kontatuko. Beraz, adi!

Galdetzen zitzaidan zer ari garen aldatzen edo zer beharko genuke

“Gauzak egiten ari gara, beti egiten ditugu. Beste gauza bat da hori nola jendarteratzen/saretzen dugun edo estrukturatzen dugun”

aldatu. Nik hor ditut proposamen batzuk. Batzuk orokorrak, beste batzuk konketuagoak. Batzuk dira gehiago ze proiektu egiten ari garen herri konketuetan, Usurbilen, Hernanin, Zumaian... publiko komunitarioaren kontzeptua garatuz, eta gainera ikuspegi feministarekin. Gauzak egiten ari gara, beti egiten ditugu. Beste gauza bat da hori nola jendarteratzen/saretzen dugun edo estrukturatzen dugun. Edo modu anekdotikoan geratzen den. Baina herri honetan nola oso txikiak garen ba, askotan gauza bat sozializatzea ez da horren zaila beste leku batzuekin alderatuta. Eta horri esker ere mugimendu feminista oso potentia daukagu.

Zer egin behar dugun galderari erantzuteko, honako ideiak nahi ditut ekarri.

Erresistentzia lurraldetua. Boterearen espazioaren mikrofisika lurraldetu bat ekoitzi behar dugu, hori baita gako zerbitzuzko kapitalismo patriarkal, kolonial eta finantza-

rioari aurre egiteko: gorputzak lurraldea dira, lurraldea gure gorputz kolektiboa da; hori apurtzen, pribatizatzen eta pobretzen badute, gure gorputzak pribatizatu, apurtu eta pobretzen dituzte. Bizitza gorputzuta, hots, lurraldetuta baino ezin da existitu. Horregatik da ezin bestekoa eguneroko bizitza egiten dugun lurralde horretatik bertatik egitea erresistentzia eta borroka. Espazio askeek lurralde burujabeak behar dituzte –eta horiek espazio komunak– komunitate burujabeak sortu ahal izateko. Espazio ezberdinak ekoitzi behar ditugu, komunalak, publikoak baina informalak, formalak eta politizatuak, autogestionatuak, hibridoak eta dimentsio anitzekoak. Hemen bi adibide baino ez ditut aipatuko:

- *Espazio desmerkantilizatuak*, diruak baliorik izango ez duen truke bidezko gune, ekintza eta praktika multzoak sortu: merkantziak, erlazio moduan ulertuta, tokirik eta zirkuiturik izango ez duen espazio fisiko-digitalak sortu.

- *Espazio desfamiliarizatuak*, eta, noski, familatik pasatzen ez diren zaintza sare egonkor eta egitura-tuak. Horretarako hiri espazio osoa aldatu behar da: gure bizitzak ordenatu, artikulatu eta sostengatzen dituen herri eta hiri antolakuntza eta espazio publiko eta pribatua za-

titzen dituzten kosmobisio, estatu eta ekonomia politikoaren egitura guztiak eraldatzea eskatzen du horrek, eta, beraz, legedi, justizia sistema, sistema ekonomiko eta kultural osoa, familiatik hasita: emakumeon desjabetze eta esplotazioaren gune pribilegiatua den familia nuklearraren inguruan egituratu delako sistema politiko, ekonomiko, kultural eta urbano osoa modernitatean. Hori lortzeko, ezagutza eta praktika berri asko sortu behar dira, eta horiek egituratu eta birsortzeko gaitasuna izango duten erakunde edo dentsifikazio lurraldetuak.

“Espazio, bizitza eta komunitate desfamiliarizatuak sortzeko, toki askotatik has gaitetzke”

Ez da hau neomaterialismoaren markoa azaltzeko tokia; hortaz, labur-labur bilduko ditut neomaterialismoaren hiru oinarri ontologiko eta epistemologiko: materia semiotikoa da, materia erlazionala da, materia agentziaduna da. *Zer da materia:* materia energia trinkotua da, eta bizitza oro da materiala. *Nolakoa* da organismo bizien materia: *sinpoietikoa*, hau da, ko-sorkuntza-*ren* eta *autoantolakuntza*ren bidez

mamitzen den materia semiotiko, agentziadun eta erlazionala dira organismo biziak. Nor da *materia*: organismo bizi horiek espezie anitzek osatzen dituzten holobionteak dira, gara eta izango gara. Marko orokor hori, gerora, diziplina zientifiko bakoitzean era hibridatu batean jorratzen da, beste hainbat teoriarekin batera: hau da, estatu teoriarik, printzipio filosofiko zehatz batzuk jarraituz, ekonomia politikotik datozen beste teoria batzuekin uztartu behar da, biologian anatomiatik, immunologiatik, neurologiatik, genetikatik, epidemiologiatik datozen beste teoria eta markoekin uztartzen den bezalaxe.

Neomaterialismotik pentsatzen dugu utopia. Eta utopia horren zertzelada zehatz bat emango dut, amaitzeko. Faktore, elementu, egitura eta erakunde anitz behar dira familia patriarkal, kolonial eta liberaletik pasatzen ez diren bizitzaren produkzio eta mantentze espazioak, lurraldeak, hiriak eta komunitateak sortzeko eta horren konplexutasuna ulertu eta beste mundu bat irudikatu ahal izateko. Adibide bat jarriko dut. Espazio, bizitza eta komunitate desfamiliarizatuak sortzeko, toki askotatik has gaitetzke; kasu honetan arauetatik hasiko naiz, gerora dimentsio ezberdinak barneratu ahal izateko. Errealitate materiala eta haren eraldaketa iru-

dikatzeko jolas bat da hemen proposatzen dudana, ez programa politiko bat. Has gaitezen.

Egungo familia eta etxebizitza gehienak hurrengo bi arau sozialen arabera taxutzen dira: sexua eta herentzia genetikoa, alegia, gurasoen arteko sexua eta hortik sortutako odolezko ondorengotza: umeak. Hori da Europako familia nuklear gehienek betetzen dituzten arauak. Hori da, are gehiago, familia normala – unibertsala, hots, hegemonikoa. Eta horren arabera dago mamitua hiria, alegia, espazioa.

“Egungo familia eta etxebizitza gehienak hurrengo bi arau sozialen arabera taxutzen dira: sexua eta herentzia genetikoa”

Has gaitezen lehen elementuarekin: irudika dezagun espazio edo lurralde zati bat (mundu honetan, ez asmatutako paradisu batean), non bi arauen arabera antolatu behar dugun espazioa gaurtik aurrera:

sexua dutenek ezin dute elkarrekin bizi, ezta umeak elkarrekin dituztenek ere. Horrek esan nahi du gehiengoaren bizitza egituratzen duen hori aldatu behar dela, hau da, etxebizitza edo espazio pribatuaren neutralizazioa eskatzen du: familia patriarkala ahalbidetu eta taxutzen duten lege, egitura, erakunde, subjektu (senar-emazte) eta espazio ororen eraldaketa. Urbanismo berri bat eskatzen du horrek, ez soilik lurraren gaineko propietate pribatuaren amaiera, non etxebizitzak guztiok erabili ahal izango ditugun, non etxebizitza gune zabal eta irekiak izango diren eta lurralde horretan bizi edo lan egiten duen edonork etxebizitza eskura izango duen, beti eta duintasunez, hots, eroso, osasuntsua eta babestua. Baldintza material objektibatuak –hau da, legal, politiko, ekonomiko, arkitektonikoek–





ahalbidetuko lukete espazio pribatu eta publikoaren arteko zatiketaren neutralizazioa eta etxebizitza desberdinak edukitzea, zaintza mota oro ziurtatuta egonik etxebizitza guztietan.

“Zaintza desberdin horiek guztiak derrigorrezkoak eta txandakakoak izango lirateke, eta ez jarraituak”

Adi hemen, bigarren elementuan, logika espaziotik edo lurraldetik subjektura baitoa: lurraldeak ongizatea baldin badu, ur eta aire garbia, janari kutsatu gabea, bertako haziekin, garraio publikoarekin, anbulatorio publikoekin herri guztietan..., orduan bertan bizi direnek ongizatea izango dute. Berdin etxebizitzekin: etxebizitzek

dena baldin badute –zaintza espezializatua eta profesionala, formala, informala, afektuzkoa, afekturik behar ez duena, janari kutsatu gabea, ur garbia...–, bertan bizi direnak ondo egongo dira.

Hirugarren elementua: zaintzaz hari garenean, bizitza mantentzeaz ari gara, bizitza duinek behar duten mantentze lanaz, janaritik osasunera, hezkuntzatik gaitasun politikoetara. Zaintza desberdin horiek guztiak derrigorrezkoak eta txandakakoak izango lirateke, eta ez jarraituak; alegia, kasu honetan, umeak (edo umeak eta zaharrak) dituzten etxebizitzek zenbait ezaugarri izango dituzte beste etxebizitza mota batzuek –dema-gun, ikasleen etxebizitzek– izango ez dituztenak. Baina hemen gakoa zera da: ikasleek ere zaindu beharko dituztela umeak, dela horien eskoletan, dela etxebizitzetan. Hortaz, gizarte osoak egingo ditu zaintza mota ezberdinak bizitzan zehar, eta espazio horren arabera antolatuko da bai fisikoki bai digi-

talki, baita hori lortzeko behar diren subjektu moten produkzioari dagokionez, non 'ama', 'aita', 'senar' eta antzeko kontzeptuak desagertu edo eraldatuko liratekeen: guztiok pasatuko ginatke lau ama edo aita (biologikoa bat edo bi edo bat bera ere ez), hamar amona eta bizpahiru seme alaba izatera, hau da, etxebizitza komunitate hori, auzoko espazio edo lurralde zehatz hori sortzen duten izaki guztiok, non espazio desberdinetan egiten diren zaintza erlazio desberdinek subjektu berriak sortuko litzuketen familia heteronormatibotik at, hain zuzen 'emakume' eta 'gizonen' produkzioa eteteagatik familia eredu hori epe ertainera desagerraraziz; izan ere, lanaren zatiketa sexuala ezinezkoa izango litzateke eta, beraz, emakumeek mundu mailan egiten duten etxeko eta zaintza lan ez ordaindua berrantolatu beharko litzateke, kapitalismo patriarkalaren desjabetze gune pribilegiatua neutralizatuz.

Familia posible egiten duten baldintza objektibatu edo sozializatuak –hau da, lege, ohitura, arkitektura, etxebizitza eta espazioak– eraldatzean, subjektibizazio eta identitate berriak sortzen dira, kanpo egiturak aldatzean barne egitura emozionalak aldatzeko aukera dagoelako. Umeak bizi diren etxebizitza batean, hiru edo lau pertso-

“Denboraren eta ohituraren poderioz, salmenta edo truke hori, biolentzia mota hori, naturalizatu egiten da, legitimatu”

nek baldin badute umeak egin eta zaintzeko ardura eta betebeharra espazio zehatz horretan, gerora betebehar hori nahi eta desio bilakatu da, matrimonio-ekontzarekin gertatu bezala: ezkontza derrigortutako praktika bat zen hasiera batean, emakumeak objektu gisa saldu edo trukutzen baitziren, eta horri deritzogu ezkontza. Denboraren eta ohituraren poderioz, salmenta edo truke hori, biolentzia mota hori, naturalizatu egiten da, legitimatu, eta salmenta horretan salgai izan direnek ezkontza desiratzen amaituko dute, hori izango baita emakumeek janaria eta duintasun apur bat lortzeko ia era bakarra: gizon batena bilakatzea.

Bizitzaren produkzio erregimen desberdin batek hirigintza zehatz bat eskatzen du, espazio berriak behar ditu, etxebizitza berriak, lege berriak... Espazio berriak sortuz, lurralde berriak sortzen dira. Horretarako, familiak osatzera garamatza baldintza material semiotikoak aldatu behar dira, eta horrek egitura

emozionalak eta desioaren egitura eraldatzea eskatzen du; izan ere, subjektu berriak osatu behar dira, alegia, identitate berriak, non identitatea materialtasun politiko esanguratsuen dimentsio semiotikoa den. Gaitasun politikoek gaitasun lurraldetu eta espaziala hartzen dute barne; ez naiz ari hiritarren eskubideez, baizik eta herriaosatzen dutenek espazioa ekoizteko duten gaitasun politikoez.

Amaitzen juteko, horrek aldatzen ditu desioak eta hau oso garrantzitsua da aipatzea bestela ez dakigu askotan nola egin utopietan eraldaketa horiek. Behar dugu beste zerbait desiratu, desirak aldatu behar ditugu.

Elkar zaintzan ere promiskuitatearen aldekoak dira batzuk. Nola aplikatzen ari gara gure ahaidetasun, laguntasun edo komunitate harremanetan hori?

Zein arau daude askotan bikoteetan esaten ez direnak? Sexua trukutzen da nahi ez dugunean? Edo, egunero elkarrekin bizi behar dugu ohe batean? Zergatik egiten du hori jendeak ohe gehiago daudenean? Hor dauden arau zurrunez konturatu behar dugu.

Guk ariketa hori kuadrillan egiten dugu, ez eskolatik jaio garen horrekin, baizik eta aukeratutakoarekin.

Emakumea klase bat dela onartu behar dugu gure kuadrillan onartua izateko. Eta gizona beste klase bat. Emozionaltate politiko bat jorratzen dugun kuadrilla da nirea. Badakigulako egunero gerran gaudela, eta orduan gerra horri aurre egiteko elkarrekin bizi gara. Elkarbizitza horrek esan nahi du, astero fisikoki gaudela, egunero hitz egiten dugula, egiten ditugula estrategiak, egiten dugula goizetan irakurketa bat.

“Guk badakigu heteronormatiboak diren zaintza sare horietatik ateratzen zarenean, kanpoan eta periferian geratzen zarela”

Familia bat gara. Orohar oso lotua dugu familia gauza despolitizatuekin. Guk ordea, gure familia honetan dena politizatzen dugu, zeren argi dugu erregimen totalitario heterosexualean bizi garela. Orduan, adibidez bikoteak dituztenak ezin dituzte bi oporraldi izan urtean eta zure kuadrillarekin bi oporraldi izan behar dituzu. Ezin da zure bikoteaz doan hitz egin kuadrillan. Arazo larri bat badago bai, baina bestela ez. Gizonak ezin dira sartu kuadrilla honetan. Gehienak bollerak dira, baina ez denak. Gure

whatssap taldeak ministerio bat dirudi, alderdi presidentzial baten komunikazio gabinetea. Hezkuntza legea, palestinaren aldeko mania, herriko mugimenduak, nazioarteko diru transferentziak... lantzen ditugu. Manietara elkarrekin goaz, baina elkarrekin antolatzen ditugu. Greba feminista ere elkarrekin antolatzen dugu. Gaixo gaudenean ez dugu ziur aski zopa gehiegirik lortuko baina bai afektua, laguntza, sostengua. Eta beti, beti, beti dago hor.

Guk badakigu heteronormatiboak diren zaintza sare horietatik ateratzen zarenean kanpoan eta periferian geratzen zarela, eta hotz handia egiten duela bertan. Nola antolatuko dugu beraz erresistentzia guzti hau? Bikotean ez bizitzeko inertzia? Ahaidetasun promiskuo horiek suntsitzeko sortuak daude egungo erregimen denak (totalitario heterosexualak).

Serio hartu eta politizatu zein erradikalizatu behar dugu familiaren eta amatasunen kontu hau. Uste duguna baino harago baitoa, eta horregatik intimitate politiko berriak txertatu behar ditugu gure egunerokotasunean.



JUNE Baonza Pagaldai

Diseinatzaile grafiko eta ilustratzailea da. Bere ibilbideak, sentsibiltateak, begirada kritikoak eta esperientzia kolektiboek, genero berdintasun, LGTB+ eta feminismo gaietan espezializatzen eraman dute.

Ama ta asunak

Pribatutasunean gorde izan dena, herriko plazara ateratzea bezala ulertu behar da amatasunaren politizazioa.

Zenbat bete gabeko espektatiba jaurtitzen dira emakumeen bizkar gainera?

Non biltzen dira hautu hau jarraitzen ez dutenen bizi esperientziak?

Zer da alaba izatea?

6 bizi esperientzia, 6 hautu, 6 elkarrizketa, 6 obra grafiko, bideo bat eta instalazio bat.

Asunak. Ama ta asunak. Proiektu honek erresumin horiei guztiei heldu nahi die. Adierazteko behar duten arnagunea eskaini, azaleratu eta loratu daitezen. Gozamenari eta minari, duintasun berarekin tokia eskaini, bizigarriagoak izango diren espazioak sortzeko.

Amatasunaz mintzatzeko, asunen metafora. Izan ere, landare hori ukitzeko moduaren arabera, hazkura ala gozotasuna eragin diezazuke: amatasunaren pare.

Dokumentalean barrena, sei emakumek nork bere bizipenak kontatzen ditu inongo erreparorik gabe. Hitza hartzen dutenen artean, ama direnak, ama izateari uko egin diotenak eta uko egin behar izan diotenak daude.





ABSENTZIAK ETA ERALDAKETAK

Politika instituzionalak:

Oihana Etxebarrieta Legrand.

Aitatasunak:

Asier Arizkorreta Hurtado.

Espaizoen diseinua:

Ula Iruretagoiena Busturia.

Dokumentala:

En tránsito (Oskar Tejedor) eta
Bidez-bide Elkarte.

OIHANA

Etxebarrieta Legrand

EHBFko kidea eta EH Bilduko parlamentaria

Politika instituzionalak

Eskerrik asko eta egun on guztioi, milesker gonbidapenagatik.

Egia esan ausentziez gehiago hitz egitea tokatzen zait niri presentziaz baino, edo presentzia mugatzaileez hitz egitea tokatzen zait aniztasunaz baino. Niri galdera ezberdina egin zitzaizkidan instituzioetan eta bereziki politika publikoetan gurasotasuna, familia politikak, eskubide hauek nola agertzen diren azaltzeko. Eta lehenengo galdera zen:

Erakundeetatik zein jarrera dago gurasotasunetik? Zein da politika instituzionalen zentzua alor honetan?

Nik aipatuko nituzke, hainbat testutan agertzen diren arren, agian garrantzitsuak izan daitezkeen legeak, ulertzeko esaten nuen bezala ze absentzia dagoen edo zer definizio hertsatzaile dagoen. Hor lehenen-

goa agian izango litzateke *2008ko* (dagoeneko zaharkitua geratu den) *Abenduaren 12ko familiei laguntzeko legea*. Gainera izen hori dauka. Etengabe aztertu behar dugula instituzioek familiarekiko, gurasotasunarekiko eskubideen aitortza bat eta erabakitze eskubide aitortza bat baino, etengabe laguntza, babes eta ikuspegi batetik egiten duten irakurketa. Hori ere bada asko, ez?

Interesgarria iruditzen zait irakurtzea zuei lege honek dakartzan zatitxo batzuk. Gainera kuriosoa da. Niri azken urte hauetan legeetan murgiltzea tokatu zait eta, lege hau hiperr-laburra da! Oso orrialde gutxi ditu. Bi hizkuntzetan, hau da Euskal Autonomia Erkidegorako familiei buruz esaten dena [papera erakusten du].

Honela hasten da: *“Familia erakunde naturala da”*. [Jendeak barre

egiten du] Horrekin guztia esaten dugu, ezta? Zuhaitzetan, sagarren alboan... hazten den zerbait bezala. Gero, hala ere, aitortzen du *“kultura errealitate bat ere bada, eta gizarte antolaketa arako forma ugari ekar dezake. Ez dago beraz, familiaren kontzeptu intenporal bat ezartzerik”*.

“Baina gero ikusiko dugu hau ez dela errealitatea, egun ez zaizkiela eskubide berdinak aitortzen udal aurrean ezkondu egin diren edo izatezko bikote diren pertsonen.”

Baina hor gehiago sakontzen hasten bazara, lege honen helburu nagusietako bat da: *“ondoko baldintzak betetzen dituen familia eredu bat sendo dadin bultzatzea. Autonomia, kide guztien arteko errespetua eta bi bikotekideen arteko berdintasuna. Biek ala biek ere, lanbidean aurrera egiteko aukerak dauzkatela eta partekatzen dituztela”*. Hau da, ikuspegi bat oso familia hetero-nuklearrean zentratua, bi pertsonen (bi helduk) eta ahal dela bat/bi hurrek osatutako familia bat helburu duena. Eta gainera, haien autonomia sustatu nahi du, baina ez haien autonomia pertsonala edo eskubideena baizik eta

enplegu eremuan beraien ekarpena egin dezaten.

Gero, hala ere bai aipatzen du, nola bait aitortza egin nahi diela izatezko bikoteei, ez dela zergatik ezkondu egon behar. Baina gero ikusiko dugu hau ez dela errealitatea, zuetako askok hemen bazaudete eta badakizue egun ez zaizkiela eskubide berdinak aitortzen udal aurrean ezkondu egin diren edo izatezko bikote diren pertsonen.

Eta honen azterketarekin amaitzeko, berriro esaten du *“Familia da bi pertsonak edo gehiagok osaturiko bizikidetzat taldea. Pertsona horiek ezkontzat edo antzeko harreman batez loturik daudenean edo elkarren artean guraso eta seme-alaba direnean edo beste edozein ahaidetasun dutenean. Tutoretzaren eta harreraren kasuan guraso eta seme-alabaren arteko harremanaren parekotzat hartu ahalko dira horiek, dena delako laguntzaren izaeraren arabera eta dagokion araudiaren arabera”*. Eta dagokion araudia, dagozkien eskubide horien desgranazio hori egiten duten testuetara jotzen dugunean, badakigu ez direla eskubide berak aitortzen, ez daudela baldintza berak eta gainera ezberdintasunak ematen direla hiru lurraldeen artean. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia pertsonen ez dauzkate eskubide berak familia politikak arautzen dituzten



lege asko eta asko diputazioetara erartortzen direlako eta horietan analisi ezberdina egiten delako.

Hala ere uste dut interesgarria dela aztertzea gurasotasuna eta familiak nola guk agian ezberdin ulertzen ditugun arren, lege hauetan berdin tratatzen dituztela. Eta gainera, irakurketa hau egiten dutela: *“gutxienez bi helduk osatutako familia eredu batzuek arituko gara”*. Eta esango nuke gutxienez eta gehienez. Ez direlako ere ez onartzen bestelako antolaketa ereduak, aukeraturako bestelako ahaidetasun ereduak, komunitarioagoak diren ereduak.

Eta hor zentratu nahi nuke bereziki amabakar/monoparentalitate egoerak ez daudela kontenplatuak, esaten den arren eskubide berdinak dituztela, ez da egia, ez da errealitate bat egungo lege esparruan. Edo adibidez, monoparentalitatearen

definiziorik ez dago, EAEn, horrek beraz eragiten du instituzio bakoitzak monoparentalitatea nahi duen bezala ulertzea. Eta monoparentalitate egoerez ez da hitz egiten. Hau da, etengabe definizioak oso itxiak dira eta monoparentalitatea agian ulertu dezakete batzuek hautaturako pertsona bakar batek sistema publikoaren bidez guraso izan ahal dela. Hori agian, agian eros dezakete. Badakigu eskubideak ez direla berdinak permisoen inguruan hitz egiten badugu. Baina monoparentalitate egoerak ez dira aitortzen. Monoparentalitate egoerak izan daitezke: hasiera batean haur bat biko familia batean hazia izaten hasia bada ere, ba momenturen batean bietako bat espetxera sartzen baldin badute, monoparentalitate egoera batez hitz egiten ari gara momentu horretan, ez dagoelako haur horren kargu egiteko kapaza

den gurasoetako bat. Eta ez dira monoparentalitate egoera bezala identifikatzen.

Edo Euskal herrian arrantzara sei hilabete luze joan izan diren pertsonen kasuan, gehienetan geratzen zirenak emakumeak izanda, emakume horiei ez zaie monoparentalitate egoera aitortu, errealitatean izan direnean.

“Banatutako bikoteetan eskubideak murriztu egiten dira. Badirudi eskubideak banatu egin behar direla”

Horregatik irakurketa oso mugatuak direla, eskubidegabetzen dituztenak. Eskubideak aitortu baino, eskubidegabetze bat egiten da egiten den definizio horietan.

Eta beste adibide bat emateagatik, duela gutxi ere lantzen ibili ginen lagun batzuekin: familia ugaria dira, hiru seme-alaba dituzte, baina haiek ez daude ezkonduak. Familia ugariko txartela bietako batek izatea eskatzen zieten. Orduan, ez da egia esaten den hori, aitortzen direla. Eta hauek heterosexualak dira eta hiru seme-alaba dituzten bikote bat dira, baina ez daude ezkonduak.

Ez da egia 2023an ezkondata ez bazaude, eskubide berdinak aitortzen zaizkizunik.

Edo banatutako bikoteetan eskubideak murriztu egiten dira. Badirudi eskubideak banatu egin behar direla. “*Beno, banatu zarete, beraz erabaki behar duzue eskubideak norrekin doazen*”. Nahiz eta zaintzarekin, konpartitutako zaintza eredu batekin aurrera egitea erabakitzen bada ere.

Ordea, beste aurpegia daukagu. Gaur beste lege bat aipatu nahi nuen: *Gurasoen banatze edo haurtuta kasuetarako familia harremanei buruzko legea*: “zaintza partekatu derrigortua” bezala izendatu genezakeen legea. 2015koa dela esango nuke. Desgrazia bat herri honetarako. Ikuspegi era bat... beno, ba instituzioek daukaten ikuspegia: bi guraso ezinbesteko direla haurren zainketa hori egokia izan dadin. Bereziki aitaren beharra ezinbestekoa dela definitzen duen lege bat. Eta gainera ahazten duena, nahita, familien barnean ere eta familiak beraiek ere indarkeria gune pribilegiatu bilakatu daitezkeela. Badakigu lege hau erabiltzen ari dela inoiz haurren zaintza bere gain hartu ez duten gizonen partetik, gainera horrelako elkarrekin sustatua etorri zen. Badakigu indarkeria matxista kasuetan aplikatzen ari den lege

bat dela. Inposatzen ari den eta epaileek inposatzen ari diren lege bat dela.

Adibidez, kasu bat kontatuko dizuet. Indarkeria matxista epaiketa bat martxan dagoen bitartean, familia epaitegietatik haur horren kustodia lantzen ari direla ere bai (hau da gure sistema honek daukan beste kontuetako bat). Bi abokatuen (erasoa pairatu duenaren abokatu eta eraso egin duenaren abokatu) arteko adostasuna zegoen PEF bezala ezagunak diren (Puntos de Encuentro Familiar) horietan noizean behin harremana izan zezan haur horrek aita horrekin, eta epaileak inposatu du zainketarik gabeko orduak eta asteburuak izan ditzala haur horrek.

Hori da errealitatea. Zer dira instituzioak? Dira lege batzuk oraindik ikusten dutenak biko den familia eredu bat, gizon-emakume artean ematen dena. Edo behintzat horretara ahal bezain beste hurbiltzen zaion eredu bat non, indarkeria egoerarik ez den ematen, ez dira aitortzen indarkeria egoera hauek eta non inposatzen diren zainketa ordu batzuen behar izana.

Eta nik aipatuko nuke azken lege bat: *Berdintasun Legea*. Lege honetan ordea, kontraposizioan, hitz egiten ari gara giro hauetan in-

“Ahaidetasun konpartitu hauek ez dira izendatzen, eta are gehiago, ez zaizkie eskubideak aitortzen, eta horrekin izugarritzko arazoak sortzen ari dira”

darkeria mota ezberdinak eman daitezkeela. Eman daitezkeela ere bai instituzionalak diren indarkeria batzuk familia ereduen gainean. Baina gerora definitzen duen gauza bakarra da laguntzak eskuratzeko eskubidea aitortzen dituela. Horretaz hitz egiten du, ez ikuspegia zabaltzeaz, ez ahaidetasun konpartituak zabaltzeaz... Eta hor esango nuke: bat, ahaidetasun konpartitu hauek ez direla izendatzen, eta are gehiago, ez zaizkiela eskubideak aitortzen, eta horrekin izugarritzko arazoak sortzen ari dira. Badaudelako erabakitako ahaidetasun eredu batzuk ez daukatenak instituzioarekiko inolako eskubiderik. Eta eman lezake txorrada bat baina ez da: antolatutako, horrela erabakitako pertsona helduek beraien kabuz, beraien heldutasunez erabakitzen duten eta konpartitua den, elkar aitortua den sistema bat eraikitzen saiatzen dira, baina sistemak ez die hori egiten uzten.



beharko lituzketela, are gehiago egoera honetan. Hitz egiten ari dira krisi demografiko bat daukagula, eta planteatzen ari dira izugarrizko gatazka bezala hori. Horren aurrean egon daitezkeen aukera desberdinak eta eskubideak aitortu beharrean, kontrako norabidean jotzen dute.

Adibidez, Osakidetza haur horiek eramaterakoan, tutore legala ez den pertsonak ezin du haurren gaineko erabakirik hartu, nahiz eta krianza horretan horrela egitea erabaki duten. Haur horrekiko eskolako edozein bileretarako, ez da inolr beste pertsona hori. Orduan, “komunitario”-az orain ahoa betetzen ari zaien instituzio hauek (ikusten dugu nola hartzen dituzten mugimendu feministaren diskurtsoak) eta orain hitz egiten duten zaintza sistema publiko-komunitario eta feminista eraikitza doazela... Baina zer da komunitarioa? Nola ulertzen duten zer den komunitarioa? Azkenean hitz hutsalak dira.

Horren guztiaren aurrean, nik uste dut, familiak, askorati amatasunak, ahaidetasunak... defendatu

“Gurasotasun monoparental horiek definitu beharrean gaudela, horiek aitortu eta horiei eskubideak ematean dagoela erronketako bat”

Nik hor ere esango nuke, urgentziez ere galdetzen zidatelako, horietako bat dela guraso bakarrak edo gurasotasun monoparental horiek definitu beharrean gaudela, horiek aitortu eta horiei eskubideak ematean dagoela erronketako bat.

Adibide oso argia da: orain, zaintza baimenak anpliatzen ari diren momentu hauetan, anpliatzen ari dira berriz ere bat gehi bat izango baltz bezala. Baina bat bakarrik baldin bazara, haur horrek behar duen bat

gehi bat denbora zaintza hori ez zai-
zu emango, zu bat bakarra zara eta
punto.

Oraindik ere errealitate bat bizi
dugu: gurasotasunak emakumeak
pobretzen ditu. Hori da errealitatea
herrialde honetan. Eta aitak, aberas-
tu. Posizio sozialean eta, ikerketa asko
erakusten dute nola eskalatzen duten
botere ekonomiko eta sozialaren
baitan, eta nola emakumeei kon-
trakoa gertatzen zaien.

Orduan errealitate hori bizi da, hori
urgentzia bat da.

Agian galdetu beharko genukeena
da zergatik guraso izan nahi duten
pertsona askok ezin duten egun
izan edo erabaki duten ez izatea.
Zeren eta errealitate bat da eta da-
tuek horrela erakusten dute. Pertso-
na askok nahi dute, baina ezin dute.
Orduan, goazen eskubideetaz,
goazen bizi baldintzen prekarieta-
teaz hitz egitera eta ez horrenbeste
kontu batzuetaz. Ematen du sus-
tatu behar dela gurasotasun nahi
hori, eta uste dut hortik urruti, bes-
te baldintza materialetaz hitz egin
behar dugula.

Urgentziaz ere hitz egin behar
dugu amak kriminalizatzen dituen
sistema baten aurrean gaudelako.
Síndrome de alineación parental
kontzeptu horiek oso presente
jarraitzen dute sistema hauetan.

Haurraren erabilera egiten duen
amaren ikuspegia oso zabaldua
dago, ez bakarrik indarkeria ma-
txistaren kasuetan, baita ere insti-
tuzioarekiko borroka egiten duen
ama horien kasuan, indarkeria ins-
tituzionala salatzen.

“Agian galdetu beharko
genukeena da zergatik
guraso izan nahi duten
pertsona askok ezin
duten egun izan edo
erabaki duten ez izatea”

Hor badago ama eroaren, obse-
siboaren iruditeri bat instituzioek
beraiek lantzen dutena epaileen bi-
dez baina baita ere indarkeria salatu
duten emakumeen kontra egiteko.
Eta hor aipatuko nituzke ere bai in-
darkeria obstetrikolari aurre egiten
saiatu diren emakumeak nola krimi-
nalizatu diren.

Eta beste kontu bat litzateke
emakume pentsionisten egoera
zaintzari “modu naturalean” lo-
tuta. Garai batean etxean haurrak
eta helduak zaintzea erabaki zuten
eta beraz, enplegu alorrean urteak
eman ezin zituzten emakume
horiek egun dituzten miseriazko
pentsioak badira sistemak zor dien
konpentsazio bat eta hor ere orain-
dik asko dago egiteko. Badakizue

pentsio miserableenak (bizitzeko oinarrizkoak ez diren horiek) jasotzen dituztela %90 luze batek.

Amaitzeko, aurrera begirako horietan nik uste dut badugula erronka bat: aitortza. Eta instituzioek egiten hasi beharko luketena dela ahaide-tasunak modu ezberdin batean lantzen saiatu diren horiek aitortzen hastea. Hortik hasi beharko genukeela. Egin, egin daitekeelako. Arazorik gabe egin daiteke. Erregistratu, erregistratu daitezke haurrak beste modu batean egin nahi baldin bada. Ez dago inolako arazorik! Kontua da ez dela nahi.

Eta bere garaian gogoratzen naiz zenbat barre egin zuten Ana Gábrieltaz tribuaz hitz egin zuenean. Uste dut hor asko dagoela egiteko eta asko eskaini dezaketela instituzioek eskubideak aitortzeko. Eta berriro diot (eta hemen itxiko nuke): arazo handi handietako bat identifikatzen duten demografia krisiaren aurrean, dauden errealitateak aitortzen hasiko bagina eta dauden antolatze-ereduak aitortzen hasiko bagina eta horiek eskubidedun subjektu bilakatuko bagenitu, asko aurreratu ahalko genukeela. Eta bereziki haurrak eskubidedun subjektu bezala ulertuaz.

Zeren eta etengabe hitz egiten egon gara eta gaur horretaz ari ga-

relako, baina hemen badaukagu tresna bat dela haurren interes gorena. Eta haurrak objektu figura eta zaintza behar duten figura hori direla irudikatze-irudikatze, eskubidedun subjektu autonomo direla irudikatze-irudikatze-ra pasatzeko momentuan gaude. Uste dut beraien ongizatea erdigunean kokatuta, gauza asko aldatu ahalko liratekela eta potentzialidade handia duela horrek.

ASIER

Arizkorreta Hurtado

Emagineko kidea.

Aitatasunak

Kaixo, niri ere lau galdera bota dizkidate, lau gai. Esan nahi nuen ohar modura *“egin behar dugu,...”* esaten dudanean gutaz ari garela, gizonetaz, aitetaz.

Bota didaten lehenengo galdera:

Asko pentsatzen da amatasun ereduetan, eta aitatasunari buruz? Gizonekin gai honi buruz eztaba-datzerakoan, nondik pentsatzen da aitatasunaz?

Nik ariketa txiki bat egin dut. Imaginatu dut aita naizela edo izango naizela, eta liburudendara joan naiz informazio bila. Eta hortik hasi nahi dut, jaso dudan informaziotik.

Asko harritu nau liburuak idazteko erabiltzen den tonuak eta ikuspegiak. Amatasunei buruzko liburuen bilaketa azkar bat eginez, hainbat ildo lantzen dituzten izenburu ira-

dokitzailak aurkitu ditut, batzuk gorputzean zentratuta, beste batzuk emozioetan, epaiketa soziala edo sortzen diren harremanei buruzkoak. Aitatasunei buruzko liburuetan ordea, esan liteke tituluak eta azalek gutxienez honako sentsazio hauek transmititzen dituztela: *“uf, ea gai naizen gainera datorren honekin...”, “ze mobida da hau...”, “nola izan naiteke aita guay bat..?”* Askotan aitatasuna umoretik bakarrik begira daitekeen zerbait balitz bezala bideratzen da. Lotura handia du hondamendi eta kontrolik ezaren ideia saihestezinarekin.

Garrantzia ematen zaio, halaber, eta hori tailerretan ikusi dugu, liburuak idatzi duen pertsona emakumea edo gizona den. Are gehiago, harago doala esango nuke, aita den edo ez den axola duela; izan ere, aitek in egindako tailerretan, eta ni aita ez izanda, aitatasuna aztertzeagatik

kritikatu izan naute askotan. “- *Baina aita zara? - Ez. -Ah!*”

Badirudi aita izateak (edo aita bezala izendatua izateak) aitatasunari buruzko ezagutza unibertsa ematen dizula, benetan zalantza eta beldurrez beteta daudenean.

Gure errealitateari inposatzen zaion kanpoko zerbait bezala bizi dela esango nuke, ez bizitzako aukera bat bezala, ez erantzukizun eta aldaketarako momentu bat bezala. Egia da sistemak erritmo, praktika eta egiteko modu jakin batzuk inposatzen dituela, baina ez da kasualitatea aitekiko absentzia sententzio orokorra egotea.

Aitatasuna indibidualtasunetik eta halabeharrezko errealitate batetik pentsatzen da (ni aita naiz, nire arazoa da, nire egoera da...) eta

“Badirudi aita izateak (edo aita bezala izendatua izateak) aitatasunari buruzko ezagutza unibertsa ematen dizula”

horrek haurrak printzipio hegemoniko batzuetan heztera eramaten dituzte. Aita diren irakasleekin hitz eginda ere, beren haurrek bizitzan izango duten eragin bakartzat jotzen dute bere figura. Eta jo, zu irakasle izanda ere bazara besteentzako erreferentea, eta haurrek beste erreferente batzuk ere badituzte. Eta hori gero jorratuko dut, baina behar da nolabaiteko komunitate edo aitatasunaren sentimendu kolektiboago bat. Oso oso indibidualizatuta dago.



Egia da, halaber, garrantzi handia ematen zaiola seme bat, alaba bat edo seme eta alaba izatearen arteko aldeari.

Aitatasuna arazo berri gisa bezala bizi da, eta paradigma pertsonal berri bat sortzen da, non sortzen diren premia guztiak bete behar diren, betiere premia emozionalak ez diren guztiak lehenetsiz.

Zein da aita onaren irudia egun? Iruditik errealitatera nolako jauzia dago? Zein lotura du egungo gizontasunaren eredu tradizionalarekin?

Nahiko erraza da gaur egun aita onaren irudia edo ideia betetzea. Azkenean, listoia oso baxu egon da urte askoan; gainera, gizonei askoz gehiago saritzen gaituzte orokorrean, baita gure bizitza mantentzeko oinarritzko gauzez arduratzeagatik ere, eta gure burua zaintzeagatik baita ere. Orduan, oso erraz betetzen da aita onaren figura. Afektua erakustea edo pixoihala aldatzea ekintza garrantzitsua da, saritzen delako edo kritikatzan delako, gutxitan oharkabea pasatzen da.

Horregatik esaten da aitatasuna oparitu egiten dela, ezer gutxi egin ez gure pribilegioak justifikatzeko gai garelako eta amek baino ospe handiagoa lortzen dugulako.

Lan ikusezina saritzen ez denez, gutxieneko ikusgarri bat egitearekin aita on bihurtzen gara.

“Gizonei askoz gehiago saritzen gaituzte orokorrean, baita gure bizitza mantentzeko oinarritzko gauzez arduratzeagatik ere”

Horren ondorioz, zaila da aita aita “onak” izatera bultzatzen dituzten arrazoiak ikustea: saria jasotzen dugulako? Sentimendu hori dugulako? Aitatasuna erabiltzeagatik epaituak eta sarituak izatean, erosotasun sentsazioa sortzen da (sarituak izatean), baina baita deserosotasun sentsazioa ere (epaituak izatean). Esango nuke ohikoagoa dela epaiketa negatiboari aurre egitea eta hori zergatik ez dagoen ondo azaltzea eta benetan dagokiguna egitea defendatzea saria zalantzan jartzea baino.

Azkenean, gu epaitzearen aurka gaude, baina ez gu saritzearen aurka, eta hori oso arriskutsua da.

Aitak maila fisiko, emozional eta komunikatiboan ez egotea maskulinitate ereduaren ondorio zuzena da. Prekarietate psikoemozionala

maskulinitate tradizionalaren oinarrietako bat da.

Orduan, hemen ere hitz egin nahi nuen emozioak adierazteko tresna faltaz. Tresna emozionalen gabezia horren ondorioa “indarke-riazko konpentsazioa” da. Maskulinitate hegemonikotik eta maskulinitate eredu ez hegemonikoetatik abiatuta, emozioak adierazteko ekintza ez da aukera bat, marikoia- ren kategoriaren barruan sartu nahi ez badugu behintzat. Salbuespen batzuk alde batera utzita, hala nola gertuko norbait hiltzen de- nean edo jarraitzen duen ekipoak irabazten edo galtzen duenean, emozioak modu ireki eta zintzoan erakustea ez da aukera bat, baina izan daiteke, hori egitean agresi- bitatearekin konbinatzen badugu. Horrela, afektu erakusteak indarke- ria itxura hartzen du, konturatzen ez bagara ere.

Arrazoia edukitzea, autoritatea eta protagonismoa izatea aitatasunean gurutzatzen diren gaiak dira, eta gi- zon gisa eraikitzetik datoz.

Emozioak adieraztea gizonen ar- tean zabaltzen ez den bitartean konpentsazio biolento honek funtzionatzen jarraituko du aitata- sunaren baitan. Aitatasunean gi- zontasun tradizionalarekinko lotura totala eta absolutua dago.

“Maskulinitate eredu ez hegemonikoetatik abiatu- ta, emozioak adierazteko ekintza ez da aukera bat”

Zer egin beharko zenukete gizo- nek gaur egungo absentziei aurre egiteko? Non ikusten dituzu gako nagusiak? Eta aukerak?

Ba, lehendabizi, identifikatu ab- sentzia. Baita bere aniztasunean ere. Gizonekin hontaz hitz egiten dugunean berehala joaten gara absentzia fisikora, fisikoki ez ego- tearen horretara. Baina ez da fisi- koa bakarrik. Baita ere emoziona- la, komunikatiboa edo zaintzakoa izan daiteke, adibidez. Ez da seme alabentzat bakarrik sortzen den absentzia, bikoteak eta, oro har, fa- miliak ere absentzia sufritu dezake. Eta absentzia horiek identifikatzea garrantzitsua da.

Nire ustez, gako nagusiak birfor- mulazio pertsonal integral batetik pasatzen dira. Ez dut uste gizon bakar batek ere ideala lor dezakee- nik, baina asko hobetu dezakegu. Horretarako beharrezkoa da eten- gabeko lana eta ikuspegi kritiko eta transfeminista txertatzea.

Aitatasuna, sarritan, seme alabak hazteko moduan zentratzen da, eta hortik askoz harago doa. Gizonok botereari lotzen gaituzten jarrerak aldatu, beste batzuk eraiki eta geratzen dena desgerraraztea da kontua. Hasiera puntu pertsonal positibo bat eraikitzeaz arduratu behar gara.

Hona hemen gako batzuk:

- Aitatasunarekiko erantzukizuna.
- Zaintzak (eta autozainketak).
- Emozioen kudeaketa.
- Harremanak landu eta zaintzeko gaitasuna.
- Oinarrizko pedagogia ikasi.
- ...

Jakina, badago tarte bat proba eta errorea egiteko, baina gauza asko aurreztu ditzakegu hasieratik. Badakit klixe bat dela, baina auke-rak egunero sortzen dira ekintza bakoitzarekin. Niri asko gustazen zait ariketa hau egitea: testuinguru horretan kokatzea eta zu zer zaren besteentzako ikustea. Oso subjektiboa da, baina gutxienez neurketa hori egitea ikusten zein botere harreman egon daitezkeen eta nola ekidin. Oso garrantzitsua da, lehen-tasunak ongi ordenatzeko eta ab-sentziarik ez sortzeko.



Eta azkeneko galderarekin noa: **Ahaidetasun feministak indartze aldera, zer nolako aitatasunak behar ditugu? Zein dira eraldake-ta gakoak?**

Niri gustatzen zait psikopedagogian dagoen premisa bat, aitatasun eta ahaidetasun feministei begira oso adierazgarria egiten zaidana.

Premisa oso erraza da: ez baduzu berrikusten, hausnartzen eta tres-na berriak sortzen eguneroko, tentsioko edo krisiko edozein egoera kudeatzeko, bizi izan di-tuzun egoera edo antzeko horietan zurekin erabilitako modu eta tresna berberak erabiliko dituzu. Hau da, ikasi duguna sortzen dugu. Eta gi-zonok ikasi duguna autoritarioa eta bortitza izaten da.

Askotan geure burua harritzen dugu egiten dugunarekin, txarrerako, bai-na behin identifikatuta, hurrengo

urratsa erantzukizuna hartzea eta merezi duen lehentasuna ematea da. Azkenik, tresnak bilatzea eta praktikan jartzea.

Eta bukatzeko, Máximo Peña autoreak idatzitako *“Paternidad aquí y ahora”* liburua nahikotxo gustatu zait. Berak honako gakoaren eredu hau proposatzen digu:

- Gorputzaren presentziari garrantzia ematea, hor egotea.
- Arreta osoa. Hemen pila bat matizatu dezakegu. Niretzako arreta ikuspuntu kritiko transfeminista batetik da.
- Denbora dedikatzea aitatasunari
- Ekitatea-Berdintasuna mantentzea espazio horretan
- Uko egitea. Baina ez sakrifizio modura, baizik eta jakitea gauza batzuei uko egin behar diezula.

Hori ez da prozesu erraza, ezta prozesu bakarra ere, eta lan kolektiboa egin behar da zerbait errealista izan dadin. Norberaren lana banakakoa da, baina konpromisoak kolektiboa izan behar du.



ULA

Iruretagoiena Busturia

Arkitektoa, urbanista eta EHUKo irakaslea

Espazioaren ahaidetasuna

Lehenengo igual gauza basiko bat. Uste dut inportantea dela ulertzea bizi garen errealdade materiko hau gizartearen isla bat dela. Egia da ba igual lengoi arkitektonikoa erre-flexionatu gabekoentzat ez dela oso ebidentea, baina bai, jarraipen baten emaitza da, bizimodu eraketa baten emaitza da. Eta hor bizi gara. Espazio batzuk mugatzaileak dira eta beste espazio batzuk askatzai-leak, eta tresna oso boteretsua da bestelako aukera batzuk emateko. Denok gara espazioaren erabiltzaile, eta denok daukagu esperientzia bat espazioarekiko.

Espazioaren arkitektura eta gurasotasunaren arteko lotura ez da akaso begi bistakoa, ahaidetasunak giza eta ekonomia mailako gatazka bat izanagatik beste eremu batzuetan izaten delako ez-tabaidagai. Baina gure gorputzak

zaindu, mugitu eta erlazionatzearen ekintzak leku fisiko batean ematen dira. Inguratzaile material batean edo bestean gertatzeak nolabaiteko baldintzatzaile da eta bestalde, testuinguru fisiko eta materialaren nolakotasuna norbaitek zehaztu du aurrez. Esan nahi da, bizi garen edozein gela diseinuaren atzetik haragizko “norbait” bat dagoela bere pentsamendu, logika eta egiteko modu baten arabera erabakiak hartzen.

Honela, pentsatzeko jarrera baten egituratzen du nolakoa den gure kalea eta etxearen tamaina, forma eta akabera materiala; nola erlazionatzen diren espazioak, zer lotzen den zerekin eta zer banatu zerbaitetik, zer hartu behar den kontutan eta zer ez, non inbestitzen den eraikuntzako dirua, zein diren espazio erabilgarri



baterako oinarriak, zein gorpuztetan pentsatzen den leku baten beharrak zehazterakoan (eta beraz zeintzuk alboratzen diren).

Espazioa definitzeko edozein erabaketan funtzionamendu eta lotura eta banaketa batzuk diseinatzen dira, eta erabaketan ideologia eta politika bat dago. Askotan espazioen eztabaida marko politikotik ateratzeko esan ohi da funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna gai objektiboak direla. Baina tranpa bat dago objetibotasunaren babesean, homogeneitate eta estandar balore batzuk hobestean, gorputz eta behar eredu nagusi bat aukeratzen delako ezinbestean.

Politika baten alde egiten da alegia. Argi esanez: espazio arkitektonikoa eraikuntza eta konstrukzio bat da

aldi berean, gure bizimoduari leku eta zentzu jakin bat ematen diona.

Horregatik arkitektura gizartearen egitura politiko, sozial eta ekonomikoaren tresna boteretsu bat da bizimodu jakin bat zedarritzeko unean. Adibidez,

bizi garen gizarte modernoaren oinarriak bigarren gerrate mundialaren ondoren zehaztu ziren Ipar Ameriketara, bizimodu ideal baten pean: familia nuklearra hirietako aldirietan, etxe bakarreko eraikinean, berdegune pribatuaz inguratutik eta auto pribatuarekin. Edo aldirietako apartamentu txiki batean pisu askotako eraikinak zentrotik urruti dauden etxebizitza sozialen getoak sortu. Etxe baten gela banaketa eta hiri baten etxe ereduaren kokapena aztertzean gizarte eredu bat irakurtzerik bada, eta horren azpiko egitura-baloreak ere bai.

Etxe agentzia batean sartu eta etxe baten planoaren aurrean jarrita, lehen gurasotasun ideia argi bat iritsiko zaigu. Etxe agentziakoak jaurtikotik duen lehen galdera zenbat logeletako etxea nahi dugun izango da. Etxeak logela kopuruaren ara-

bera desberdintzen dira, ez gela kopuruaren arabera, hau da, etxe unitatearen biztanle kopurua eta bere lo osaketak etxe tamainako sailkapen bat osatzen du.

Behin etxearen oina mahaian dugula, logela batek “logela nagusi” adierarekin identifikatuko dugu, eta denon ulerpenean dago gurasoen logela dela. Baina logela batean bestelako loaldiak antolatzerik badira: anaia arreba guztiak elkarrekin, amona eta iloba elkarrekin edo gurasoak banaka lo egiteko aukerak logela nagusiaren beharra kuestionatuko luketen arren. Logelaren nagusitasuna tamainak ematen dio, eta askotan bere osaketak ere bai: logela nagusiak armairu bat du bere barnean, eta batzuetan jantzigela bat, eta komun propio bat. Ia-ia apartamentu txiki bat gainontzeko espazioetatik bananduta.

Gurasoen bizitza banandua eta indibidualizatuak bikotearen bizitza intimo bat sustatzeko egina dagoela pentsa liteke, gurasoen biluztasuna eta sexualitatearen gordailua izan nahi duelako eta erosotasun gehiago behar dituelako. Ez dago argi ongizate nahi baten bilaketa bat dagoenik diseinu adiera hone-tan, eta arkitekturako pentsamendu kritikoak dio familia unitatean gurasoen nagusitasuna nabarmentzeko asmo bat dagoela, guraso eta

gainontzekoen arteko hierarkia bat gorpuzteko nahi bat.

Gurasoen nagusitasun izaerako etxeak ez du esan nahi gurasoen bizimodua errazteko ondorioa duenik. Etxearen familia nuklearraren izaera nabarmendu besterik ez du egiten, gainontzeko ereduak estandarretik at utziaz.

“Etxe baten gela banaketa eta hiri baten etxe eredu-
kokapena aztertzean gizarte
eredu bat irakurtzerik bada,
eta horren azpiko egitu-
ra-baloreak ere bai”

Etxearen beste diseinu keinuek lagundu dezakete espazioaren ahaidetasunean: gurasoen logela ume txikien logelarekin lotura zuzen bat izatea lagungarri izan daiteke, edo etxetik lana egiteko aukera suertatu ezkerro gela bat izateko aukera, edo gurasotasunak dauzkan bizi fase desberdinetara egokitu daitekeen handitze txikitze gelak izatea. Eta gurasoen elkarbizitzan eta, maitasun erromantikoaren dese-raikitze bidean, logela banatuetan lo egiteko aukera interesgarria suertatu daiteke. Aukera guzti honetan pentsatzeak etxearen arazo

estrukturalago batera eramaten gaitu: etheen tamaina txikituz joan da azken hamarkadetan, etxea inbestitze produktu bat bihurtu den heinean.

Tamaina txikiko etxeetara ohitu gara, ordaintzeko bizi hipoteka bat onartzearekin batera, eta tamaina murrizketa zailtasun handia da beste gurasotasun espazio eredu bat proposatzeko garaian. Hauxe da gurasotasun eta etxearen arteko gatazka handienetakoa, eta bere ebazpena arkitekturaz gaindi dago.

“Zenbat diru inbestitzen da errepideak edo kongresuetarako eraikinak egiten, eta zenbat haur txokoentzat edo gurasotasunen beharrak pentsatu eta asetzeraz”

Arkitektoa ez den norbaitentzat espazio bat irakurtzea zaila gertatu badaiteke ere, denok espazioaren erabiltzaile garenez geroztik, denok daukagu ahalmena kontatzeko zenbateraino espazioak laguntzen edo oztopatzen duen gure bizimodua. Zenbatetan esan ohi da etxeko espazioak eta leihoak zailak direla garbitzeko edo eguneroko gor-

dailuetarako leku eskasa dagoela edota arroparen garbiketa prozesua burutzea deserosoa dela. Sekula etxea garbitu ez duenak zaila izango du gai hauek ongi ebatzi. Beraz, deskubritu egiten da diseinuaren atzetik dagoen “norbait” horren klase maila eta generoa.

Eta etxeko atea itxi eta kalera ateratzean, desberdina al da panorama? Bada “norbait” horren begirada aldatu ezean, gatazkak antzerakoak izango dira. Ez dugu ezer berririk esango, hiria produktibitatera bideraturik dagoela baieztatzen badugu. Zenbat diru inbestitzen da errepideak edo kongresuetarako eraikinak egiten? Eta zenbat haur txokoentzat edo gurasotasunen beharrak pentsatu eta asetzeraz? Autoarekin azkar mugitzeko hiri eta lurraldeetan bizi gara, gurasotasun bizitzak eskatzen duen mugimenduz zerrendako lekuak distantziara kokatuz eta beraz egunerokoa zeharo estresatuz. Kaleetatik haurrak bakarrik eta seguru ibiltzearen esperientzia aspaldi galdu zuten herri eta hiriek, gurasotasunen beharren kontra.

Bestalde, errekaduak edo erosketak hurrekin batera egiteko esperientziak asko lagunduko luke gurasotasunaren bizitzaz; demagun posta etxe ondoan harearekin jolasteko gune bat dagoela, edo udaletxeko sarre-

“Behin oharturik zenbateraino espazioak gure bizitza baldintzatu edo laguntzerik duen, bestelako begiradak aintzat hartzera garamatza”

ratik gertu baratza txiki bat, ogasun etxean urarekin jolasteko txoko bat; gurasoak nagusien egitekoak burutzen dituzten bitartean haurrek beren lekua izan dezaten, bien beharrak aintzat hartuz (gurasotasunaren oinarrizko funtsa). Guraso-haur binomioan funtzionatzen duen lotura berriz, kontsumoarena da (jolas parkea-kafetegia).

Zeinen zaila gertatu daitekeen batzuetan oinarrizkoak diren gauzak kalean burutzea: komunera joan edo ura lortu edateko edo garbitzeko. Kalekotasun ulermenean, loaldi txiki bat hartzeko tokiak arraro suertatzen dira edo oinutsik ibiltzeko guneak. Horrelako egoeretarako espazioetan pentsamendurik ez dago. Hirien produktibotasun eta kontsumo eredua horrelako keinuetan nabarmentzen dira, eta berriz ere agerian gelditzen da nor dagoen diseinu erabakien atzetik. Zeresanik ez, kalearen eta espazio publikoaren esperientzia asko aberasterik legokeela gurasotasu-

nen begirada barneratuko bagenu, erabilgarritasun eta esperientzian ere bai. Kaleetan irakurtzerik diren kartel eta mezuak funtzionalak dira; nola iritsi lekuetara, zer ezin daitekeen egin... ez daude haurren iruditeria zabaltzerako bestelakorik, “aspergarriak” dira. Gurasoen begirada batek akaso kale azalerak erabiliko lituzke jolas baliabide gisa, kolo-retsua eta dibertigarritasunaren dimentsioa diseinura ekarrik. Ze egun, kaletik ibiltzea nonbaitera joatea da, ez da iradokitzailea beste ezertarako, ez du gure irudimena astintzen.

Behin oharturik zenbateraino espazioak gure bizitza baldintzatu edo laguntzerik duen, bestelako begiradak aintzat hartzera garamatza. Onurak orotarikoak izango direlako, denontzat. Etxeak eta kaleak bizigarriagoak lirakeke, eta aldagetak ez lukete diru inbestitzearekin zerikusirik, baizik eta beste elkarbizitza dimentsioak barneratzearekin.

Idazketa hau burutzean Luisa Fuentes Guazak aurrera daraman *Futuridades Maternales* (2022-2023) ikerketa erabili da eta Izaskun Chinchillak idatzitako *La ciudad de los cuidados* (2020) liburuko ideiak jaso dira.

EN TRÁNSITO

Oskar Tejedor (zuzendaria) eta
Bidez Bide Elkartea

2009. urtean sortu zen Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartea. Diziplinarteko lan taldea osatzen dute, ikuspegi transkulturala, dekoloniala eta genero ikuspegitik proiektuak garatzen dituzten profesionalekin.

Herritartasun inklusibo eta parekide baten eraikuntzan ekarpena egin nahi dute, Euskadin bizi diren emakume migratuentzako eskubide eta betebeharrak berdinekin.

Mintegian Bidez Bideko bi kidek parte hartu dute:

Katia Reimberg Castello Branco:

Brasilen jaioa, Donostian bizi da duela 18 urte. Ekintzaile feminista, etengabeko proiektu dekolonialean eta Giza Eskubideen defendatzailea.

Soraya Ronquillo Peña:

Jaiotzez Peruarra, Gizarte langilea eta Antropologia sozialeko ikasketak amaitu zituen Euskal Herrian. Ekintzaile feminista dekoloniala eta herri-hezitzailea.




Haien lana Donostian eta EAeko beste udalerrri batzuetan garatzen dute, batez ere “interna” modura lan egiten duten emakumeekin (etxeko zerbitzuan eta mendekotasuna duten pertsonekin lan egiten dutenak). Oro har, emakume hauek esperientzia migratzaile transnazionalak bizi dituzte, eta hauen ahalduntzeari begira eta jendartean beren ekarpena egin dezaten lan egiten dute.

Era berean, garapenerako hezkuntzari loturiko proiektuetan lan egiten dute, sentsibilizazioa eta konzientziaziorako ekintzen bidez. Proiektu horiek lanbide heziketako zentroak, unibertsitateko ikasleek eta bertako nahiz migraturiko pertsonekin burutzen dituzte.

Lan ildoetako bat bitarteko audiobisual sozialak (dokumentalak, laburmetraiak, argazki erreportaiak) ekoiztea da, tresna pedagogiko bezala erabiltzen dituztenak. Zentzu honetan, 2016-ean *EN TRÁNSITO* dokumentalean parte hartu zuten Oskar Tejedorren gidaritzapean.

Mintegi honetan, dokumentala ikusteko aukera izan dugu amatasun transnazionalen inguruan eztabaidatzeko. Izan ere, dokumental honek Europara egonkortasun ekonomikoaren bila bakarrik doazen milaka ama latinoamerikarren errealtateak eta beraien seme-alabekin dauzkaten distantziako harremanak aztertzen ditu. Era berean, aipatzen ez diren mugako egoerak, ezagutzen ez direnak eta bizitza osorako eragin handia izango dutenak ere.

Emakume etorkin horien eta haien seme-alaben arteko elkarriketaren bidez, *EN TRANSITO*k migrazioa “hemen” nola bizi den eta “han” geratzen direnen baldintzak nolakoak diren erakusten du. Batzuetan mezua iristen, galtzen edo eraldatzen ez den kodez betetako komunikazioa da, eta ezinbestekoa da bi errealtateak ezagutzea mezua desfizatzeko.





emagin
**Formazioa eta
ikerketa
feminista**

www.emagin.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN